



N.º 699

ATV
1941

200

JESUS'EN BIOTZAREN IĀ



UNIVERSITY OF TORONTO

M-5541

R-

A.T.O.

1941

JAUNGOIKO. - ZALE'REN IDAZTIAK



JESUS'EN BIOTZAREN IĀ

OAR-ARTETA TAĀ J. A.

YAUPARIAK



ZORNOTZA'N
JAUNGOIKO-ZALE'REN IRARKOLAN
1931

Nihil obstat

Victoriae die 31 Martii anni 1931

Emmanuel a Lecuona.

IMPRIMATUR

Victoriae, die 8.^a aprilis 1931


† *Matthæus Episcopus.*

Victoriensis



¡Euskaldunak, ez gaitezala izan Jesus'en Biotzaren
maitatzaġerik txikienak!

(A. MENDIBURU'K)



SARERA



Oso euskaldunen gogokoa izan da beti Jesus'en Biotzaren jaiera. Sortu zan ezkerroztik beti izan du jaiera eder onek jaraitzale zintzorik asko gure artean. Pirine-mendiz onuntzatic izan diran Jaungoikozko Biotz onen beri-zabaltzaierik beroenak eta bizkoenak ere antxiñako gure anai A. Kardaberaz, A. Mendiburu, A. Kalatayud etab. izan ziran.

Euskaleria izan da lenen-lenengo bere odola—bere umeak—Biotz maitati gozori opa izan dizkiona.

¿Nork ez daki, beriz, gure euskereak duan libururik ederenetan bat A. Mendibururen «Jesus'en Biotzaren debozioa» dala?

Emezortzigarren gizaldian, oraindik, euskerazko idazti gutxi, oso gutxi, genduan, baña genduan gutxian ere, danetan bikañe-

na, jaiera gozo onekiko idaztia zan. A. Mendiburuk berak gero egin zituan «Otoitz gai» oparoak ere, ileroko Jesus'en Biotzaren eleizkizunetan irakurtzeko egin zituan.

Jesus'en Biotz maitagari orentzako izan dira, beraz, gure elerti-baratzeko lenen-sagarik elduenak eta lorarik usaintsu ta ikusgarrienak.

Ben-benetan emezortzigararen gizaldiko Euskal-eria osoro ta zearo Jesus'en Biotztiar izan genduan.

Emezortzigararenean ordea zer egin degun?

Ez da gutxi izan ainbeste naspil ta erorkada negargariren erdian, lengoan, beti lengoan, txutik irautea. Beste eri asko naspiletan galdu edo ondatu-ta ibili dan artean, gureak, beste gutxi bezela, ortxe jardun du, Jesus'en Biotzaren Eregetasunaren alde odola ixuriteraño buruka. Eta pake ta barealdia etori danean, beriz, or ibili dira orduan ere, gure aiton agurgariak Jesus'en Biotza indar guztiaz goratzen eta onesten, baztar guztietan jai

andiak egiñaz eta Aren Irudiak, kale ta baseri-etxe guztietan esariaz.

Idazti-lanai bagagozkio, beriz, nola aztu dezakegu orain bizi diran euskaltzale-etan ospetsuena danak—Azkue Apaizak—egindako idaz-lanetan bat maitekiroen eta gogozen egiña «Jesus'en Biotz maitearen ila» dala?



Ogeigarren gizaldian ere bear zan norbait. Eta badakigu Biotz maitati onentzat zerbait egin bearez lanean jardun dutenak asko izan dirala joan dan gizaldi laurden onetan. Oietan bat Oar - Arte'tar Joseba Andoni Apaiza. Eta ez motelena. Eskuetan daukozun «Jesus'en Biotzaren Ila» da bere idaztia, irakurle. Idazti polita... Ortxe daukozu...

Liburutxo onetaz itz bi esan bear nizkitzuke orain emen.

Baña ez derizkiot egoki, luze mintzatzea. Labur esango dizut neure eritxia.


Sermolaria degu oren Egilea. Ezagun

du. Itza erex, oso erex dario nun naitik. Errex eta ugari. Izketarako erextasunak ordea, ez dio bat ere kalterik egin, bear zan argitasunari. Argi darabil, oso, bere esagaia. Eta egoki, oso egoki. Ez du idaztiak, bear ez dan gogorkeririk. Biziro gozoa ta atsegiña du irakurtzea. Idazti errex egiña, irakuri ere errex egiten da. Baña, irakurle, ez det luzatu nai. Zerorek ikusiko dezu emen dizudanaren egia.

Agur.

Im. Lekuona, Apaizak.

Gazteiz'en 1931'gn. Loraiñean.





JESUS'EN BIOTZAREN IĀ

Kurutze santuaren...

Jesukristo neure Jaun...

EGUNEROKO OTOITZA

¡Jesus'en Biotz samur-samuña! Igaro yaku Loretako il zoragaña. Il onetako gure ames ta zeregiñik begiko ta atsegintsuena Zure ta gure Ama gozo-gozoaren bizitzako onoimenak ikasi, ta bera, iñoiz ez lez, gurtu ta goratzea izan da. Ta egi-egiz, guk ondo pozik ekingo geuntsan, beti, zeregin oneri. Baña... tamalez Mayatzeko il pozez beteak iges egin dausku, ta orain...

¡Jesus biguna! gure Ama Eleiza deunaren guraria danlez, il onetan batez bere, zure Biotz samur, erukior, gozo ta gartsua gurtu, goratu ta aintzaldutia, oneitantxe gatoz ona, zure auñera: zure Jaungoikozko biotzak, bere bizitzan damoskuzan ikasbide arigari ta zerutarak ikasi ta bera al daikegun añoan gurtu ta goratzen. Auxe da gure oingo asmo bakaña. Baña... ¡Biotzik goragariena! geuk geronek baño be obeto ezagutzen dozu Zuk gure adimenak onetarako, oso ilunak dirala, ta gure biotzak, bari, oso makal ta argalak. Itz baten, Jauna, zuk inok ezanetik barik dakizu, zure laguntza barik, guk zerurako ona danik ezertxu be ezin geinkela ez asi, ez yairitu, ez amaitu. Onegaitik ba, ¡Biotz erukioña! Zure ta gure Ama Andra Maria, Neskutz garbi-garbia bitarteko dogula, aien-bai-aien, daskatzugu, gure adimen ilun oneik, zerutar argiz, argitu daiguzuzala, ta gure biotz argal oneik be, goitar indarez, sendatu daiguzuzala; onantxe, egunero-egunero gogartez, zure Biotzeko

Ikastola santu ořetan zertxobait ikasi ta zure maitasun utzezko laba gori ořetan berotu ta garturik, egunen baten, zure *Betiko Eřeñua datorkigun.*


Amen.

EGUNEROKO AZKEN OTOITZA

¡O Jaungoikozko Biotza! Mendi ta zelaiak, ituři ta itxasoak, abere ta munduko beste gauzak egin zenduzanean, auxe esan zeunskun: *oneik gauza guzti oneik zeurenak diraz;* (I. Cor., 3, 22). Baña gu egi-tean, ostera, beste au esan zeunskun: *baña zuek etzare zeurořenak, neureak eta neure biotzarenak baño* (V, 23). Iñoren gauzea, iñoren lez zaindu bear da. Iñoren gauzea bere jaubearentzako, ardura andiz, gorde bear da. Onez ba, ¡Jauna! guk be geure arima, almen ta sentsun guztiak, zeure aintzan erabili, ta zeuretzako, bakar-bakarik, gorde bear genduzan. Baña, zoritxařez, ¡Jauna! zuk ondo dakizu guk

oneikaz zer egin dogun. Zuk ondo dakizu noren eskuetan, baten baño sañiago, itxi doguzan. Zuk ondo dakizu gure dongakeri guztien bañi. ¡Jauna! Biotz-biotzez damuturik gagoz ta eruki amaibagearen ituñia zarean ezkerro, parkatu eiguzuz gure itsutasunezko bidebagekeri oneik, ta euren zor-ordain ta zuri egindako irain guztien kitugañitzat artu egizu gure gaurko gogarte laburtxu au, artu egizu zuk, egunaro, altara oñetan ixuriten dozun Odola, ta artu egizu, azkenez, guk gaur gogo ta biotz osoz egiten dautzugun gure izate guztiaren eskintzari zintzoa; aldia dator-kigunean Aitagaz ta Espiritu Santuagaz, zu betiraun guztiko Jaungoiko ori, bizi zarean aberñira eldu gaizan.

Amen.





Lenengo egunerako gogartea

Jesus'en Biotzaren deya

Igaro da Mayetza, loretako il zoragaia. Il ede onetan Andra Maria'k bere gogoko maitasun ta indarik andienagaz inoskun: «Erduze nigana lora-zale zarien guztiok; mendi ta zelai, landa ta latzin, aran eta ibaetan dan lorarik ede eta bikañena neu naz-da. Erduze neke ta lorpean bizi zarienok, neuk atsedenduko zaituedaze-ta. Erduze maitasun-egaiz zagozenok, neu naz maitasun edearen Ama-ta.» «*Ego sum mater pulchræ dilectionis*». (Ex. Eccl. cap. 24, v. 34.)

Baña, tamalez, amaitu da il zoragaia ta beragaz batian ixildu dira egunoro

Eleizan entzuten genduzan Amaren dei zoli ta eztitsuak be. Baña ez guri deika Ama ori aspertu dalako, bere seme Jesus, bere Biotz zauritua eskuetan dauala, naitbagez ta samurkiro deika daukogulako baño, esanaz: *Ona emen gizasemeak aintbeste maite dauzan Biotza, ta maitasun orde z geyenakandik eskergabetasuna baño artzen ez dauana.*

Auxe entzutean ixildu da Ama, igarodan il onetan, eleizkizun ede rez, bera goratu dogun lez, oingo il onetan be, bere Seme Donearen Biotza gurtu ta go restu dagigun.

¡Jesus'en Biotzaren Ila! Izenez bafiya ba-dirudi be, izatez ezta bafiya. Jesus' egaz batera yayoa da... *in visceribus Jesuchristi* (Philipp, cap. I, v. 8). Alan be, norbaitzuek (euren artian Jantseni ta Pistoya'rak) Jesus'en Biotza gurtzia, oingodenporetako asmakizuna dala diñue; biotza gurtzia, aragiya, okelia gurtzia dala-ta. Baña... ¡itsu erukañiak, oke' dagoz! Eztogu Jesus'en Biotza gurtuten,

aragi zati bat danez, aragi-zati ori, Irutasuneko bigarren notiazagaz (personiagaz) gizakundean bat eginda dagoanez baño. Biotza gurtzean, eztoigu ori gurtzen bere gogo, gorputz ta Jaungoikotasunagandik banatuta, guztiagandik beste gauza berezi (aparteko) bat ba'litz lez; gure orbanak garbitzearen, uratu, zauritu ta zuloa izan zan Jaungoiko gizonduaren Biotza, bere gogo, gorputz ta Jaungoikotasunagaz bation gurtuten dogu, bere maitasunaren irudi danez. Eta oneitara, ¿Zer gurgariagorik? ¿Zer, lotsa, itzal ta maitasun andia goa zor yakonik? ¿Eztoguz gurtu ta lotsa ta itzal andiz begiratzen, Jesus'en yoyotzako seaska (kuma) ta berak azken-arnasa emon eban kurutze donea, beragaz euki eben zer-ikusi ta artu-emonagaitik? Ba, ¿zelako gurkizuna ta zelako lotsa ta itzala, zor izango yako Jesus'ek guganako izan ebazan eruki ta maitasun neuri gabearen «taupada» guztien ituri, abia, kai ta jauregia izan zan Biotzari?

¿Zer agurgariagorik, Jaungoikozko

biotzkada o'ereik ots egin eben bizilekua baño? Ezer bere ez. Jesus'ek izan eban on guztia (eta txar'ik ezerbere ez eban izan) antxe zan. Antxe erukia, antxe maitasuna. Axe zan itz baten «*Sedes Dei*» Jaungoikuaren jarleku zoragar'ia.

O'regaitik ba, Jesus'ek berak berezikiro (aparteko era baten) gurtutia nai eban bere Biotz maitagar'ia, ta o'etarako, agertu yakon Alakoke'tar Margarita Maria doneari i'ñotsala: *Ona emen gizasemeak ainbeste maitatu dauzan Biotza: geyago ezin zeinkean egin, maitasuna agertzeko. Alan be, geyenakandik eztot artzen eskergabetasuna baño; euren lotsagabeke-ri, donauste, ta altarako sakramentu santuaganako otzatasuna dala ta. O'ri-xegaitik daskatzut (eskatzen dautzut) jai berezi bat egin daizula Nire Biotzaren gorespenian... txarto egi'nen ordaintza... Jaunartzea... ta abar egi'naz. Egi-egiz di'ñotzut Nire Biotza oso-osoan idegiko dala Bera gorestuten dabena zerutar maitasunez betetako.*

Au entzutean, Bernardo deunagaz bation desagun: «¿Nor da Biotz ain zauritua maitatuko ez dauana? ¿Nor da ain maitatiya maitatuko ez dauana? ¿Nor Biotz ain garbiari laztan gozo bat ukatuko deutsona? Negañezko erbeste onetan bizi garian artean, gurtu, maitatu ta goretsi daigun ba Biotz ori, ezertxu be eztago maitagañi-agorik-eta. Itxi dagiguzan alde batera Jesus'en etsayaren eretxi ta irakaspensustraibako, gaizto ta kaltegañiak, ta alegindu gaizan Jesus'en Biotzaren maitatzerik bikañenak izaten, Agustin Kardaberraz, (1) Ernani'ko seme ta euskaldun zintzoa izan zan lez. Auxe izan zan lenengo-lenengo Jesus'en Biotzaganako eraspena Euskalerian zabaldu ebana; Bilbao'ko

(1) 1703'gn. urtean Ernani'n jaioa; 1721'gnean Jesus'en Lagundian sartua; A. Hoyos bera baño lenagoko Jesus'en Biotzaren kutuna;—askotan agertu yakon Jesus eta askotan egoten ziran biok maite-maitekiro berbetan. Euskerazko liburu asko idatzi zituan. Bereak dira euskeldunentzat ain gogoangañiak diran itz onek: «Euskereak burua jasotzea nai du Jaungoikoak». 1770'gn. urtean il zan, Italia'n; Ernani'n eta Loiolako Etxe donean dagoz bere azurak.

uriyan, gai onetzaz lenengo itzaldia egin ebana. Oregaitik inoan bere lagundiko Aita Mendiburu'k (1): «Ez gaitezala euskaldunak izan Jesus'en Biotzaren maitzaierik txikienak».

¡Biotz maitagarria! Orixe nai genduke: Zeu gurtu, Zeu maitatu ta Zeu gorestu. Entzun dogu zure deya. Ezagutu dogu zure guraria. Oregaitik asmo zintzo bat artzen dogu, geure bizitza guzti onetan, baña batez be ila onetan, Zure Biotz maitagari ori zintzoro eta berezikiro gorestuteko. Asmo oreik utsak izan ez daizen, airen Jauna, arduraz begiratu gaizuz, egunen baten Zure Biotz gartsu oretako kai ta jauregira eldu gaizan.

Eskaria.

«*Sonet vox tua in auribus meis*» (Cant.-II-14)

(1) 1708'gnean Oyartzun'en jaioa; 1725'gnean Jesus'en Lagundian sartua. Jesus'en Biotzaren eraspenak Euskalerian euki daben zabaltzaierik bikañenetarikoa; sermolarik bikaña: «*Cicero euskalduna*». Euskerazko liburu asko egin ebazan: «Jesus'en Biotzaren deboziyoa» ta «Otoitz-gaiak» etab. Italia'n il zan: 1782'gn. urtean.

«¡Jauna, neure belarriakaz entzun dagidala zure deya.

Erabaglia.

«*Dilectus meus mihi*» (Cant.-II-15.)

«Neure maitiarena, gaurtik auñera, izango naz».





Bigaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotza bere Amaren erayetan

Gure siniskitzaren ardatza, sinisten doguzan beste egi guztiyen zurkaitz (puntalik) sendoena, auxe da: Jesukristo, Jaungoiko ta gizona dala.

Jaungoiko danez, beti izan da. Bera izan ez dan aldirik ez da. Ta beti bardin-bardiña. Beti aldatu-eziña. Baña gizona danez, beti ezta izan. Noizbaitean izatea artua da. Gizadiya gaizkatzeko Jaungoikuak izentaurik eukan aldiya bete zanean sortu zan Andra Maria'ren erayetan, gure antzeko egiñik dan-danian, obenian izan ezik. Oregaitik ba, Jesus biziera askotan

iruditu geinke: Sortu ta yayo orduko, ta yayo ta gero; umetxutan ta egingoa egin-da, zartzaroan izan ezik, zartzarora orduko, maitasun gar berroz il zan-da.

Goratu dagigun une oneitan, Jesus'en Biotza amaren erayetan. Ezari dagiguzan belariak Biotz zoragari oren lenengo zotinta taupada maitatitak entzuteko; biztuta zoortu dagigun gure irudimena une oneitan, Biotz sorbati onetan yazo zana irudituteko. Bana enok ulertu ta nok aditu Jaungoiko Biotz zoragari oretan yazo zana? Ezta ez, eskutukia da-ta. Bana lotsa ta itzalez desakegu (esan geinke) estu ta laritasuna, urduri, artegatasun ta egon-ezina zala lenengo-lenengo Biotz oretan yazoten zana.

Apaltasunik andienagaz dakuskegun (ikusi dagigun).

Jaungoikoa maitasuna bera da. (Joan. IV-8) Ta maitasunak bere ona zabaltzen izaten dau. Orain bada; Jaungoikotasuna ta gizatasuna bat egitean, maitasun ori, Jesus'en Biotz bigun, samur ta sor-

pañiaren erdi - erdiyan yañi zan. Antxe egoan maitasun betiko ori, zotin ta taupadaka, mundua osatu ta berotu nairik. Auxe zan bere zeregin ta amesik gurenena; auxe bere asmo bakaña, maitasunezko txingañ goriz mundua eñe ta kiskaltzea. Baña Biotz ori Andra Maria'ren eñayetan egoan ta onen aragi-lokañiak etziran lez urätzen, maitasuna be, ezin zabaldu, bere bañuko argiak be, ezin eñluz egin; bere ames, asmo ta gurariak be ezin bete. Oñegaitik ba, Jesus'en Biotza estu ta lañi, urduri ta artega egoala, ezin argiroagoan ziñetsi geinkela dirudi.

¡O Biotz maitatiya! ¡O Biotz uratua! Ondo baño obeto nekian Getsemaniko baratzean (ortuan) eta kurutze-goyan estu ta lañialdi ezin andiangoak igaro zenduzala. Baña ireizean be, enekian ain arin zure burua estutzen asi ziñanik. Baña ointxe ezagutzen dot Zu nigaitik estutu etzaren ordurik eztala izan; beti izan zariala maitasuna, eta nai zenduban neurñian, ni maitatu eziña ikustean, urduritu egiten ziñala;

beti izan zariala sua, eta nire gogoa biztu ta berotu eziña ikustean, lañitu egiten ziñala. Beti izan zendula ni erosteko egañi bizia, eta nigaitik odola ixuriteko ordua ez eltzean, gotilundu (tristetu) ta naigabettu egiten ziñala.

¡O yakituri amaibakoa! Esan barik dakizu nire biotza be, Bautismo Santuaren bidez, Zure Biotz maitagañiaren jauregi eginda geratu zana. Ordutik gora, nire ames ta zeregin bakañak onixek izan bial eben: Zu maitatu eta Zuganako maitasuna zabaltzeak. Baña orduan oñeitarako adimen-argirik ez neban izan eta gero, adimen-argi ori agertu yatanian, nire biotz onetan irañita itxi zenduan su oneri, griña ta aragikeri artian il eta amatetan itxi neutsan. Baña orain, ondo damututa nago ta egikezu Jauna, añen, nire bizitza guztiko ames bakaña auxe izan daitela: aragia-
ren lokañi gogoñak uñatu ta Zu maitatzea.

Erabañia.

«*Fratres, hoc sentite in vobis, quod et in Chris-*

to Jesu» (Philipp, II-5). «Emen gagozan anayok beintzat, Zeure antzekotzat biotzez izaten aleginduko gara».

Eskaria.

«*Maria autem conservabat omnia verba hæc, conferens in corde suo*». Jauna, egikezu, afen, zure Biotzeko zotin eta taupada guztiak Andra Mariak gordetan ebazan lez, guk bere geure biotzetan gorde dagiguzala.





Irugaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotza seintzaroan (txikitan)

Azkenez be... Jaungoikoak izentaurik eukan aldiya eldu zanean, agertu zan ludi-
dira, Zuzentasun-eguzkia. Yayo zan, Be-
len'en, Jesus zeru ta lu'en Yaube ta Er-
egea.

Ume eder, galant eta zoragañi onen ya-
yotzea oso miragañia izan zan. Lañitasun-
ta miñen zamañik bakoa. Eguzkiaren argi-
-izpia kristalen alde batetik bestera, ezer
ausi ta zikindu baga, igaroten dan lez,
Andra Mariagandik bere garbitasuna eze-
tan be orbandu baga yayo zan-da. Baña
onen Belen'go arkaizpeko egokerea ezin
negargañiagoa zan. ¡Gaba zan ta... estal-

perik, ez! Eduña zan... ta... zegaz berotu ez! Lo gura zan ta... ¡nun etzan ez! Onan-
txek aurkitzen zan Jesus, erukañien ar-
tean erukañiena, otzak ilteko zorian. Ba-
ña onakorik yazo baño len, bere Ama do-
neak, ardurarik andienaz, bere magalean
laztankiro berotu eban eta ume maitegar-
iak atsegiñik andienen artean asi eban
bere lenengo «lo» gozoa.

—¡O neure biotzeko ume kutuna! Ain-
beste otzikara ta itzañik egotearen ondo-
ren atsedeen apur baten beaña izango zen-
duala, zetan esanik be eztago. Baña alan
da guzti-be, ¿zelan izan daiteke Zu loak
ain gogor artzea? ¿Ez eunskuzun yayo
baño len iragañi gure bidea, egia ta bizi-
tza izatera zentozala? ¿Ez eunskuzun ira-
gañi gure arerio zital eta bildurgañiak
iruntzi ez geinkezan zentozala? ¿Ez da
zure asmo bakaña gu maitasunez ére ta
kiskaltzea? ¿Zelan izan daiteke ba orain,
gure arerioak zur eta bizkor dabilzazen
artean, Zu gutzaz garbi aztuta lez nasai-
kiro lo egotea?

—Bai egiya da. «*Ego dormio*», Ni eritxi baten lo nago... «*Et cor meum vigilat*»... Baña nire gogoa itzañik, adi, zur, zoli eta bizkor dago. (Cant. V-2).

Nik ba'nekian aropuzkeriak zuen biyotzetako Érege izango nai ebana. Ofexegaitik naukozue emen lo irudiyan, baña itzañik, apaltasuna zueri irakasten.

Nik ba'nekian aberatz eta ezeukien artean auzi, eztabaida ta ikusi-ezin gogorak izango zirana. Ofexegaitik naukozue emen, neure besotxuak zabalik, artzain ezeuki ta Érege aberatzak bardin maitakiro laztanduten. Ni lo nagola dirudi, baña, itzañik dagon nire gogoa da, zuei aingeru - bidez diñotzuena: «Aintza zeru goyan Jaunari ta bakia luñian guramen oneko gizonari».

¿Zer diñostazu orain zuk, ene maite orek? ¿Israël gaizkatzen etoñi ta ardura barik lo nagola?

—Ez, ondo ezautzen dot Zure Biotza beti ernai, ta beti itzañik dagoala, nire adimena argitu, nire guramena sendotu.

ta nire egiñenak zerutar indaéz yanzteko. Oregaitik ba, orain poz eta zorionez izan bear neuke, baña Zu ta nigan dagoan aldia ikusita ¿zelan izan neinke pozik? Zu lo zagozala ba'dirudi be, Zure Biotza itzañik dago beti. Ni lo nagonean bañiz, nire biotza be lo aurkitu daroa. Onek eztauko betiko osasunaren gomutarik, ta biyen bitartean, aragiaren lera ta griña txarñak zur eta bizkor dabitiz. ¡O Biotz maitagaña! Egikezu ni nazan guzti onek, oso osoan, lo egin dagidala, baña nire biotza beti ernai ta itzañik egon dedila, «*Zuk, orixe, biotza, begiratzzen dozu-ta*». (Reg. I XVI 8).

Eskaria.

«*Ego dormio, et cor meum vigilat*» (Cant. V-2).
¡Jauna! Nire lera ta griña txar ta arerio guztiak lo egin dayela, baña nire biotza itzañik egon daitela.

Erabagia.

«*Venite seorsum in desertum locum et requiescite pussillum*» (Marc. VI-31).

Nire gaurtik auñerako atsedeen ta lo apuñe Jesus'en Biotza'ren Belen'go bakartadeko lo-kukua lez izango da.



Laugarren egunerako gogartea

Jesus'en Biotza gaztaroan

¡Gaztaroa! ¡Gaztetasuna! ¡Gaztedia!
¡A, ze ete-da gaztaroa! ¿Zer ete-da gaztetasuna? ¿Zer ete-da gaztedia? Baña ¿nor da, iru gauza onek zer dirazan ez dakiana? Gaztetasuna, poza, indaía ta ala da. Gaztetasuna, gogo bizia, odol beroa, asmo aundi ta biotz-zabaltasuna da. Ondo azi ta ezi dan eta egia ta zuzena elburutzat daukozan gaztedia, bañiz, biarko gizadiaren itxaropena.

Jesus'ek be, beste gizasemeen antzera, bere gaztaroa izan eban. Eta ¿bakizu, ene maite oírek, zein izan zan Jesus'en Biotza'ren gaztaroko ames, zeregiñ, ta elbu-

rua? Entzun Lukas deunari (Cap. II) «Ur-
 tero-urtero yuan oi-ziran, diño, Jesus'en
 gurasoak, Paskoz, Jerusalem'era. Jesus
 be, amabi urtekoa zala, (aúferago be iñoz
 izan zan baña) eurakaz yoan zan. Pasko
 ·yayak amaitzean urten ziran onen gura-
 suak etxerantz, au be bere auzo ta aide
 artean itzuli (biurtu) zala-ta. Baña egun
 bat-bide egin ondoren, areikaz ez etořela
 ikustean, bañiro Jerusalem'era biurtu ziran,
 eta irugařen egunian, jakitun artean aur-
 kitzean, zurtasunik andienagaz eurai itaun-
 -erantzunak egiten, amak esan eutson:
 «Ene seme maitea, ¿zer egin deuskuzu?
 Zure aita ta ni, estu ta lañi zure bila
 ibili gara» (V, 48, 49) Eta Jesus'ek eran-
 tzun eutsen ¿Zer dala-ta ibili zarie nire
 bila? ¿Etzenkien, ba, ni neure Aitaren
 egiñenak betetan izango nintzana? (V.
 49) Eta amayeran diño goizpargileak...
 «Eta Jesus eurekaz Nazaret'era yatsi zan;
 euren mendean izan zan; eta jakituri, ur-
 te, ta ontasunian Jaungoiko ta gizonen
 aúñian aúñera yoian.

Ona emen Jesus'en Biotza'ren gaztaro-ko zeregiñ ta elburua; Jaungoiko'aren gauzetan yardun ta urtiakaz batian, yaki-turi ta ontasunian auferatzia.

Ona emen gaztedi guztiaren egitaraua be. ¿Baña zein da gaurko gaztediaren egitaraua? Zeintzuk diraz onen ames ta asmoak? Jesus'en gurasoak lez, gaurko gazteen gurasuak, Paskoz eta Pasko-os-teko yayetan onen bila asiko balira, ¿nun aurkituko ete leukiez? ¿Baldin Eleizen baten? Ala ¿baldin, kirol, yolas, edo dantz-nastu, lizun eta nazkagañien baten? Itanduko ba'litzakio gazte bakoitzari —¿zer egin dozu?— egiz eta beñetan er-antzun al izango ete leuke *¿ezenkien ba ni neure Aitaren egiñenen batzuk egiten izango nintzana?* Eta urtietan eta giza-jakintzetan, biar bada, zertxobait auferatu izan añen ¿zenbat gazte noski, kristi-ñau-ikasbidea eztakienak? ¿zenbat, aropuzkeria, deuntasunaren oñari dabenak?

¡O Jesus maitia! ¡Zelako aldia dagoan Zure gazte izatetik gaurko gaztediaren

gazte izatera! Zu, zeure gaztaro guztian zeure Aita ta Amaren esanpean izan ziran: gaurko gaztediak, baiz, eztaki zer dan lotsa ta itzalez inoren azpian izatea. Zuk, urtiakaz batera, jakiuri ta ontasunian be atera egiten zenduan; gaurko gaztediak, baiz, Eleizti-arauz ezjakinago ta ontasunian geroago ta atzeriago dirudi. Zuk obenian yausteko ariskurik izan ezaren be, astiya zeunkanean Eleizara yuaten ziran; gaurko gaztedia baiz, griña txarez beterik izan azen, itsumustuan doia, biotza osoz usteltzeko yolas galgafietara. ¡O samina! ¡O naigabea! ¿Eta nok gaizkatu lei gaztedi erukañi au, griña gaizto ta bidebakeri oneitatik? Zuk bakañik, Biotz garbi ta erukior orek. Zu zara Luis Gontzaga gazte bikañaren biotzean Zugaranako poza eta garbitasun ederaren maitasuna irañi (yosi) zenduana. Zu zara Teresatxo Ume Jesusenaren biotza luña maitatzeko otzitu ta zerua maitatzeko berotu zenduana. Zu zara neskatotxu ta neska gaztedi azikuntza (ona) emoteko Magda-

lena Sofia Barat'en biotzean Zeure Biotz-izeneko ikastetxe ta kolegioak egiteko asmoa ezaí zenduana. Zu zara Ebangelioko gazteari «erdu ta yaíai» esan zeuntsana. Oneikaz egin zenduana ¿ezin ete zeinke gaurko gaztediaz? Egikezu ařen ba, Jauna, gazte guztiak zeu ibili ziñan bidietatik ibili daitezala. Geroago ta oituretan garbiago ta Jaungoiko-jakituren ta ontasunian auferiagoak izan daitezala. Eta tamalez (lastimaz) gaztaro zoragaíak bein-betiko agur egin deutesenai, emon egiezu gaztediaren eredu (modelu) ta yaí-aibide izateko eskaía, ta iñoiz baldin euren gaztaroan argaltasunez yausi dirazenai, biotz-biotzeko damu bat.

Eskaria.

«Delicta juventutis meæ et ignorantias meas ne memineris, (Ps. 24, 7) et usque in senectam et senium Deus ne derelinquas me. (70, 18).

Nire gaztaroko argaltasun, bidebagekeri, oben ta ez-yakiñak, ez egizuz Jauna, aintzat artu; eta neure zartzaroan batez be, ez nagizu itxi.

Erabagia.

«Deus docuisti me a juventute mea: et usque nunc pronuntiabo mirabilia tua». (Ps. 70, 17).

¡Jauna! Zure gaztaroan darakuskuzuna egingo dot eta beste batzuk be egin dayen, zure ikasbidiak zabalduko dodaz.





Bostgaren egunerako gogartea

Jesusen Biotza ta ilen lenengo bederatzi barikuak

Gizonaren ludi onetako arazo ta zeregiñik aundiena auxe da: arimiaren betiko osasun ta zoriona eskuratzea. Au bein lortu ezkerro, ezta ardura beste gauza guztiak galduta be. Au geure eskuan daukogula ziur-ziur bagenki, naigaberik andienen artian be, poz-pozik biziko giñake. Baña negañezko erbeste onetan gagozan artian, au, iragarkizun berezi barik, ziurtasunez ezin yakin geinke; ziurtasunez ezin yakin geinke Jaungoikuaren aiskide ala arerio gariazen; ziurtasunez ezin yakin geinke azken arnasa, Jaunaren besoe-

tan emongo dogun ala ez; azken iraupe-
na, Jaunaren eruki ta eskar aundia da-ta.
Au dala-ta-ba, egi astun eta mingots au
burura yatorkun bakoitzean, gure gogoa
ilundu, naigabetu, moteldu ta ikaratu egi-
ten da.

¿Ez ete-dago egi astun onen mingosta-
sunak gozatu ta arindu daikezan beste
egirik? Bai, ba-dago. Jesu-kristok berak
esana da: «*Nire aragiya egiz yanaria
da, ta nire odola egiz edaria*» (Joan.
VI-56).

«*Nire aragiya yan ta nire odola eda-
ten dabena, betirauneko bizitzea euki-
ko dau*». (Id, 55) Itz oneikaz gure betiko-
tasunezko ezbai ta kezka guztiak baztar-
tu ta ezereztu nai ebazan. Baña oraindiño
be, gure biotzak geyago poztu (zabaldu)
ta gure itxaropena geyago sendatutiafen,
Alakoke'tar Margarite Mariari, bariku
baten, Jauna artzean, auxe esan eutson:
«*Nire Biotzeko erukiaren erukiz eskin-
tzen deutzut, ilen lenengo bederatzi ba-
rikutan yafayan Jauna artzen dabena,*

azken-iraupena jadetsiko dautsiedala; eztiraz ilgo nire ezkergaiiztoz, ta Sakramentuak artu barik be ez; azken-une ofetan nire Biotza euren kai (portu) izango da».

Ez daukogu ba zer dala ta, la'egi bildurtu (Joan, XIV, 1), agintzari a'riga'ri auzoriontasunaren ezauga'ri zigura da-ta. Gogo garbiz eta zintzoro i'len lenengo bederatzi barikuetan ya'ayan Jauna artzen ba'dogu, azken iraupena ziur-ziur lortukodogu. Egiz eta benetan agintzari onetan azken sakramentuak artzea be agintzen da. Ba'na lenen eta bei'nen, eta nausiki-roen, azken iraupena agintzen da. O'regaitik ba i'len lenengo bederatzi bariku onek ondo egin dabezanak, azken iraupena ziur-ziur eskuratuko dau. Eta o'reitarako azken Sakramentuak artzea nai-ta-naiezkoa dabentak, arek artzeko astiya be, izango dau.

Ona emen ba Jesus'en Biotz e'ruka'riak, gure biotz artegatuak nasaituteko, poz-tuteko, egin euskun agintzari a'riga'ria.

¡O Biotz maitatiya! Biotz-biotzez zuri eskeñak egin beaŕean gagoz. ¿Zer izango zan bestela gutzaz, agintzari aŕigaŕi oŕeik egin ezpazeunskuzan?

Ziñez, biotz-ikara ta laŕitasun askoren erdian itxaropena galtzeko zorian gengo-kezan; baña gure biotzak poztu ta zabal-duteko agintzari aŕigaŕi au egin nai izan geunskuzun ezkerro, artu egizuz gogo-gogotik dagitzuguzan eskeñak ta emoi-guzu laguntasuna, bederatzi bariku oŕeik egiteko, gero azken iraupena jadetsi daigun.

Eskaria.

«Surge Domine in requiem tuam, tu et arca sanctificationis tuæ. (Pl, 31, 8).

¡Jauna! Gure biotzetara, batez be iñen lenengo bederatzi barikuetan, jatsi zaite.

Erabagia.

«Tenui eum nec dimittam». (Cant, 3, 4).

Azken iraupen zoragaŕia neure eskuetan daukodan ezkerro, ezteutsat atzamaŕetatik iges egi-ten itxiko.



Seigaren egunerako gogarten

**Jesusen Biotz maitatiya ta Eukaristiko
Sakramentu gurgariaganako giza-
semien eskargabetasuna.**

Itz gozo ta eztitzu onek esan eutsazan Jaunak, Matatias igarlien bidez, Israëlgo eñari: «*Nik maitetu zaituedaz*». (1, 2) Eta israeldaræk euren alde ezertxu be egin ezpaleu lez, ezkergaiztoz erantzun eutsen: «*¿Nun da ba maitasun ori?*» Malakias'en antzera, San Joan goizpar-gileak be, esan deutzu: «*Jesus'ek maitatu eban gizadia*» (3, 16), beti, baña batez be azken-aldian, gure artian beti biziteko Eukaristiako Sakramentua egin ebanian. Beti Jesus'ek bere maitasuna agertu dau bere asmo ta zeregin guztietan, baña ba-

tez be, Sakramentu au egitean, maitasunak gañezka egin eban. Une oneitan, San Agustiñ'en esatez, agertu zan bere «yakituri ta al guztia».

Baña gizadi eskargaiztokoak ¿zer erantzuten deutso? Zoritxañez, Israëlgo eñiarrena edo zerbait txarago; bestela begiratu: ¿Zenbat Osti santu eztiraz gizartean amuñuz ostikopean zapaldu, abere artera jaurti, sutan eñe, ta kurutzean josi? ¿Zenbat Kaliz ta Kopoi gurgari eztiraz edozelan ta edozetan erabilteko ostu? ¿Zenbat birao izugari eztiraz jaurtiten Osti deunaren aurka? ¿Zenbat bider ezta Jesus ona, arima orbanez betiaz, oberik nazkagarrienakaz dongaro (txarto) artzen? ¿Eta zenbatek eztabe, Pasko-aldian izanañen, euren biotzetan artu barik isten? ¿Zenbat bidar eztabe Jesus oteundua (Sakramentadua) lotsaz ta itzalen kimixarik barik eskuartian erabilten? ¿Nok eztaki Jesus zelako ezeukitasun ta bakartadean bizi dan altareko Sakramentu oñetan?

¡O samiña! ¡Maitasunik andienari ain

eskergaiztoz erantzutea! Baña ¡O eskutukirik ařigariena, maitasun bigun ta zamurak, ori ta guzti be, maitatzen ez aspertzea! ¿Zelan izan daiteke ori, Jesus? ¿Zelan izan zeinke adoria, ainbeste goroto ta eskergabetasun ikusita, gure artean irauteko? ¿Zelan eztiñozu bein:—«¡Zamamarraño bete nozue!—Azpertu naz zuekin ta «*Ego vado...*» ni banoya... Ezin egon neiteke luzeroagoan zuen artean; ta ez etofí nire bila gero; alpeřik izango dozue-ta?»

Iñoz iñok izan badau ziorik (motiborik) lagunakaz asařatu ta gizartetik alde egiteko, Zuk badozu beintzat, Jesus. Zu, zeure Biotz erukior ořegaz, beti izan zara Sagrario ořeitan, gizasemeok maitatzen. Ta onek ostera, aldi guztietan, iraiñik nazkagarienak egin deutzuez. Zu baño lagun-zaleagorik ez da iñor izan, ta alanbe... geyen aldiz, Sagrario ořetan bakařik izten zaitue. Garbi-zale ta garbitasuna bera zara, ta... alanbe... sařitan biotzik ilun, baltz ta loyenakaz artzen zaitue. Zure iz-

keran (berbetan) oso ardura aundikoa ziñan, ta... alan da guzti be... orain altare oretan, itzik nastu, nabarmen ta ikaragarrienak entzun bearean aurkitzen zara. Oregaitik ba, zuk Jesus, naikoa ziorik (erasoirik) daukozu gizasemeak bertan bera itxi ta emetik zuzen alde egiteko; baña, gure artean biziteko asmoz, Altare oretan geratu ziñan ezkerre, «*mane nobiscum Domine*» auferantzian be izan zaitez ortxe Jauna; beste gizaseme guztiak irainduko ba'zeindukez be, emen zure aurrean gagozanok etzaitugu, iñoiz, Sakramentu oretan irainduko-ta. Ezkaizuz ba, ezelan be umezurtz itxi. Iraun egizu beti gure artean, janariturik zure gorputz done ore-gaz, San Pablo bialduagaz esan al izan daikegun: «*Bizi naz, baña ni, ez; nigan Kristo baño*».

Eskaria.


«*Domine, da mihi hanc aquam.* (Joan, IV, 15).

¡Jauna! Eukaristiako ur gardenak edaten dazan bakoitzian, biotz garbiz edateko eskaña, emon egidazu.

Erabagia.

«*Diligam te, Domine, fortitudo mea: Dominus firmamentum meum et refugium meum*» (Ps, XVII. 2).

«Nire indaía, oñaía ta kaia zarian Biotz maitagari ori, Eukaristian ogi ta ardauaren eraskipean (irudipean) zagozanez, beti maitetuko zaitut».





Zazpigarren egunerako gogurtea

Jesusen Biotzari egiten yakoan irañak ta onen ordainketa

Izugariak dira, atzo ikusi genduanez, Jesus'en Biotz maitagariari, batezbe Eukaristian, egiten yakoan irañak. Berarizko gauzea da norbaitek min edo naigabeen bat daukonian, min eta naigabe oñeik lagun ta aiskideai agertzea, estualdi areitan poz apuren bat emon al ba'leunskioe-edo. Jesu-Kristok be, beste oñenbeste egin eban.

Prantziako lekaime - etxe baten (konbentu baten) bizi zan Alakoke'tar Margarita Maria lekaime (monja) guztiz on eta Jesus'en Biotz-zale sutsua, ta agerturik egun baten esan eutsan: «Ona emen gi-

zasemeak ainbeste maitatu, ta ainbeste ondasunez bete dauzan Biotza; ta alan-be, maitasun neuñi bage órén orde, eztau artzen eskar onik, narda (desprecio) ta iraiñak baño; sañitan, geyen-geyen maitatzera bearturik dagozan eurakandik». Au dala-ta-ba, bere Biotza ilun ta naigabetua argitu ta poztuteko ta gaizkin askoren irain izugarien ordia emoteko «Jau-nartze ordaingaria», «Ordu Santua», ta «Eleizeak ontzat artu ta parkamenez aberastuta daukozan otoitzak», egoki-egokiak zirala, esan ta asko goratu eutsozan.

Baña esan leike; egiya da Jesus'en Biotz zamufari irain aundiak egiten yakozana; egiya da askok zoritxarez, euren begiyen aurian be eztabela ikusi nai; baña ¿zelan izan leike zeruetan oso zoriontzu dan eta miñik ezetara be artu ezin daiken Biotz maitagarria egite on órén bidez orain poztu al izatea?

Entzun egiozu Agustin deunari: «*Emoistazu, diño, maite izaten dañian biotz bat; eta berenez igariko dau au zelan*

izan leikean» (In Joanis evang, tract, 26, 4). Jaungoikoa maite daben edozeiñ-ek, gogoratuten ba'dau Jesus, gure obena-gaitik uratu, naigabetu ta eiyoa izan zala; ta gaur be, bere arerioak, beste amesik ez tarabilela orixe baño; ta al ba'lebe ta bizi ba'litz, Judegu deungak egin ebena axe bera egingo leukela, nai ta nai ez, igari barik lez, maitati oren biotza, naigabetu, gotilundu ta uratuko litzake, ta al dabela beintzat, zelan-baitean, bere asare ta naigabea agertu nai izango leuko. Asare, miñ ta naigabe-agertze au benetako ordainkuntza da. Ganera, gure cingo oben guztiak ikusteak be, Jesus naigabetu ta gotilunduten (tristetuten) eben lez, alantxek guk, gizadien amairano egingo genduzan on guztiak argiro ikusteak be, poztu egin eben. Oregaitik ba, arima Jaungoiko-zale ta maitatitak ez tiraz asetuten, Jesus'ek orain miñik ezin artu daikela yakiñaren, ordainkuntza ori egin barik; ondo dakielako gure egite on edo txar guztiak, noiz-baitean edo poz-

gari edo mingaŕi izan yakozala, bere itz naibagetsu onek diñuenez: «*Neure atsa-kabean, poz apur bat emon dagistan baten-baten bila ibili naz, ta ez dot idoro*». (Ps. 68, 21).

Jesusen Biotz uratu au, bere atsekabe izugaŕietan, gure egite onen bidez, poztu geinkela yakin ezkerro, ¿nor da pozkaŕirik ukatu leikiona? ¿Nor da bere aita, iñoren atzamar artean austu ta eiyoten ba'lekus (ikusiko baleuke), negaŕez ta samiñez, berialaxe, bere alde yaŕi ta irain aren ordia emongo eleuskiona?

¡O Biotz maitagaŕia! Zu zara gure aitarik on eta samuŕena. Izan zaitez gure artian. «Geyago ezetara be etzaitugu irainduko», iñotzugun atzo; iraiñik ez egitea bakaŕik, gitxiegi litzakela, deritxogu gaur. Oŕegaitik ba, ¡Biotz urtua! asmozintzo bat artzen dogu, zure Eleiza maita ta Zuri, donaustez, biraoz ta abar egiten yatzuzan irain guztien ordainkuntza «Jaun-artze», «Ordu santu», ta beste egite on guztien bidez emoteko, oneitara

bañien-bañi samiñez esan al izan ez daizun: «*Poz apur bat emon leikedanen bila ibili naz ta ez dot aurkitu*». (Ps. 68, 8).

Eskaria.

«*Ut non sit schisma in corpore, sed idipsum pro invicem sollicita sint membra*». (S. P. 1.^a ad Cor. XII, 25).

¡Jauna! Asaŕe ta banakuntzarik ez bedi izan aŕen, zure ta gure artean, gorputz baten zatiyak gara ta, bata bestearen atsakabaetan alkaŕen ardura ta maitasuna baño.

Erabagia.

«*Angeli pacis amare flebunt*». (Isa, XXXIII, 7).

Bakezko aingeruak, Jesusen Biotzari egiten yakozan iraiñak dirala-ta, samiñez negar egiten daben lez, bardin nik be, zoli negar egingo dot.





Zortzigaren egunerako gogartea

Jesusen Biotza ta umeak

Umeak, izate bi daukozala dirudi; «zoragañi» izatea eta «gogaikañi» izatea.

Batzuetan, umea baño ¿zer izaki pozkoñ ta zoragañiagorik? Beste batzuetan ¿zer ase ta gogaikañiagorik? ¿Zer poz eta atsegingañiagorik, euren esakera ta yolas-kerak bañegañiari begira, itsutu ta lelotuta lez gaukezan umeak baño? Ta ¿zer ase ta gogaikañiagorik euren zarata ta gañaxi goñotogañiakaz buruko miña egiten deuskuen umeak baño? Auxe dala - ta ba, umeak batzuetan oso kutun ta maitegañi egiten dira, ta biotz-biotzez norberagana dei egiten yake. Beste batzuetan osterak

gogaikañi egiten dira, ta orduan, biar bada, itzik deunga ta nabermenakaz, asañez albaztera yaurtiten diraz. Baña ¿zer da, umeakaz egin bear dana? ¿Ze lotsa, itzal ta maitasun zor yake umeai? Umeai lotsa, itzal ta maitasunik aundiena zor yake, Jesus'en Biotzak darakuskunez.

Jordan'go ibaya igaro ta Judea-ertzera, Jesus zeruko bidea irakasten eldu zan baten, ume batzuk aurkeztu (aurera ekañi) eutsezan, onetsi (bedeinkatu) ta euren alde otoi egikean. Umeak, urduri, zarata-tsu, kaskarin ta yolaskoiak izan oi dira ta, euren zarata ta zapañadakaz beste nago-siagoai, euren zeregiña galazoten eutselako-edo... ikaslak asañe ta agiraka egin eutsien, ume areik ekazenai. Baña Jesus'ek, asañe ta biotz - miñez, esan eutsen: *«Itxi egiezue umiei nigana etorten, eta ez egiezue galazo, Zeruetako eñeñua, onakoxiena da-ta. Egi-egiz diñotzuet, zeruetako eñeñua umeak lez artzen ez dabena, eztala bertan sartuko. Eta be-*

sarkatu ta eskuak euren gañian ipiñirik onesten ebazan» (Mar. 10, 14, 15, 16). Auxe egiten eban Jesus'ek umiakaz; be-sarkatu, laztandu, ta onetsi. Ta, zelan ez, ¿apur bat geltzarin, ta zaratatsua izanañ-en, umea baño izaki, zintzo, apal, xalo, leun ta biotz garbiagorik ezpadago? Oñe-gaitik ba Jesus'ek, biotz-biotzez maite ebazan. Ta zori txañez, iñor, bere esate edo egite gaiztoz aingerutxu onen galbide izan ez eitean, olako umetxu bat bere eskuartian artu ta laztanduten ebala, iñoan beste baten: «Nigan siñesten daben onako umetxuen bateri irakatsi ta ikasbide txaña emoten dautsenak, oba leuke asko baño, eñotañi bat zamatik bera lotu ta itxasora yaurtiko ba'lebe» (Marc. 2, 41). Ona emen Jesusen Biotzak zelako lotsa, itzal ta maitasuna eutsen umetxuai. ¡Ta ori gero, dirudiyanez, ume arek oindiño bateatu barik egozala! ¿Zer izango ete-zan batiatuta egon ba'ziran? ¿Zer euren biotz gazte, bigun areik zerutar doe ta emaitzez apainduta, Espi-

ritu Santuaren jauregi izan ba' lira?

¡O Biotz maitagaría! Oso bigun ta zamuía izan zala dirudi zuk ikaslai, zeugandik umiak yaurtiten ebezala-ta, egin zeuntsen agirakia. Baña ¡Biotz zuzena! ¿biguna izango ete-litzake zeure asarí-ia, ikusiko bazendukez orain umien azikuntza (edukaziñoa) dala-ta, lateñiak emoten dabezan lege kaltegaríak? ¿Zer esango ete-zenduke, guraso batzuri entzungo bazeunskioe irakastolara dabiltazen euren umetxuai esaten: «¡Ene umetxuok! ikasi egizuez ondo-ondo beste ikaskuntza guztiak, baña etzaiteze lar nekatu kristiñau-ikasbidia ikasten, ortik etxatortzue ogirik-eta?» ¿Zer, ikusiko ba' zeunke gazte ta zar askok, ume erubagien aurrean esan eta egiten dabena? ¿Eta zer, ikusiko bazeunkez, lora edeñ oneik ernamiñean zimeltzeko, ezkondu deunga, alpeñ, lizun, ankeñ, ta berekoyak ibili oi dabezan asmo ta lan gaitzetsi ta inpernutañak? ¡O Jesus maitia! Zetan esanik be eztago zuk «Sagrario» oñetatik bidebage-

keri guzti oneik ikusten dozuzala, baña, ori ta guzti be, zure eñuki ta eroapena aundiya da-ta, erabagi zoñotzik artu barik, eten barik diñarduzu Sagrario oñetatik samur ta maitekiro esaten: ¡Enetxuak! ezeizue olakorik egin! Oñelakorik egin baño obe zenduke eñotañi bat zamatik dozuela itxasora yeurtiko ba'zindukez-da! ¡Biotz samurña! Ezaitetz aspertu dei ori egiten, oñetaraxik umien areriyoen adimenak argitu ta euren biotzetan zeure antzeko ume-maitasuna sortu dedin.

Eskaria.

«*Sinite parvulos venire ad me*». (Marc. 10. 14).
¡Jauna! Emoiguzu umeak geuganatzeko eskaña.

Erabagia.

«*Sicut exhibuistis membra vestra servire iniquitati, ita nunc exhibete membra vestra servire justitiæ*». (Rom. 6. 19).

Len, esatez ta egitez, umeai gauza txarñak irakasten ibilñi garian lez, orain gauza onak irakasten ibilñiko gara.



Bederatzigaren egunerako gogartea

Jesusen Biotza ta ezeukiak

Ezeukia ta aberatza, izatez bardin-bardiñak dira. Biyak Adan'en ondorengoak, biyak Jaungoikoaren semeak. Onen biyen artian, geyen aldiz, ez daroa izan beste desbardintasunik diru-ondasunena baño. Beraz, munduak abegi bardiña izan bear leuskiyoe, bardin maitetu bear leukez; baña, jo desbardintasuna! Aberatza, nunnai pozik artzen da. Ezeukiyagandik bañiz alde egiten da. Aberatzak lagun asko izan oi ditu, txiroak bañiz oso gitxi. Aberatza aupa-aupaka ibili oi dabe, ezeukia bañiz, yaurti-yaurtika. ¿Nok eztakiz txiro erukañiaren aurka esan dirian gaitzetsikeriak?

Horazio olerkariak (bertsolariak) ezeukia ateufetik yaurtiteko esaten eban antxiña, ugar ta orbanez iñor lotsatzeko baño etzala-ta. Ciceron'ek, ezeukiai erukia izatia, kirtenkeri aundi bat zala iñoan. Beste onen eritxiko asko be, aldi ofeitan, eréz idoro leikez. Auxe zan ludiyan ezeukiai agertzen yaken eruki ta maitasuna. Baña agertu zan, zorionen baten, ludira Jesus Salbagiñia, eta bere yayotza ta bizikera txiroagaz, zeruetaraño yaso eban ezeukitasuna. Auxe zan lenengoz bere biotza erukitan urtzen eukala esan ebana: «*Zorionekoak biotzez txiroak, zeruetako er-eiñua eurena dabe-ta. Zorionekoak negar dagienak, poztuak izango dira ta*» (Matt. v. 3 5). *Ez egizue nai izan emen, sitsak eta ugarak yan ta lapurak ostuten daben leku oneitan, zeuentzat aberastusunak pilatu. Asko be oba dozue onek zeruetan zeuentzat gorde* (Id. v. 19 20). «*On ona izan nai ba'dozu, jea! daukuzun guztia saldu, ta emoyezu ezeukiei, ta zeruetan altxoña izango dozu*» (Id.

c. XIX, v. 21). «*Yan aundiren bat dagizunean dei egiezu ezeukiai... ta zorieneko izango zara, ordaindu ezin deutzuelako, oneitarik onen ordia, zuzenen berbizkundian artudo dozu-ta*» (Luc. c. XIV v. 28). *Egi-egiz diñotzuet* (aberastasonak itxita) *niri yañaitu deustazuenok, berbizkunde egunean Jaungoiko-Semea bere bakaulkian (tronuan) yañi daitenean, zuek be, yañiko zariela*... (Matt. c. XIX, v. 28). *Orduantxe entzungo dabe autuak dirianak: «Erduze, neure Aitaren onetsiak, munduaren asieratik zuentzat gertaurik egoan bakaldeñiyaren (ereñuaren) yaube egitera. Gose nintzan ta yaten emon zeunsten; egañi nintzan ta edaten emon zeunsten... au (erukizko egintza au) nire onetaiko anai txikienetarikoen bateri egiten deustazuenian, neuri egiten deustazue*» (Matt. c. XXV, v. 34, 35, 45). Ona emen Jesusen Biotzak ezeukiei deustsen eruki ta maitasuna. Zorionekoak, diño, biotzez txiroak, au da, aberatzak izanañen, zekenkeriz euren biotza ludiko ondasunai

yosita ez daukenak, zeruetako éreiñua euren dabe-ta. Oregaitik diño Bossuet yakintsuak: «Ludiyán aberatzak daukoz aukera ta gorengo maña guztiak; Jesu-Kristoren éreiñuan, txiroak dira aúnenen. Ludiyán ezeukiak aberatzen menpean bizi dira, ta euren otsein izateko bakarik yayoak dirudiye. Baña Jesu-Kristoren éreiñuan (Eleizan) aberatsak eztauko sañerarik, txiroen otsein ez izatekotan (Serm. Septuag.)» Ezeukiarentzako biotz bigun ta érukioña ez daukanak egunen baten entzun bearko dau: «Gose nintzan ta yaten ez eustazun emon; egañi nintzan ta edaten ez eustazun emon». Oneikaz egiten dana Kristo berberagaz egiten da-ta.

¡O Biotz érukioña! ¡O ezeukien maitati aundia ¡Añituta gagoz zuk ezeukiatzaz damoskuzuzan ikasbide txalogañiakaz. Baña ez bakarik añituta, baita garbi lotsatuta be. Añituten gaituz zure biotza, ontasun-zalekeri guztiak itxita, geu artzeko *uts-utsik* ikusteak. Lotsatuten gaitu, geure biotza, ondasun egañiz *bete-beterik*, zu-

retzako leku barik ikusteak. Aritzen gaitu, mundu guztia zeuria dala, burua nun ezafi (etzun) eztozula ikusteak. Lotsatuten gaitu, geure erukirik ezagaitik, txiro asko olan ikusteak. ¡O biotzik samuřena! Yaurti egizu gure biotzetatik ludi onetako aberastasun ustelkořen gose - egafi izugafia, zeu, ondasun bakar ori, maitatu zaikeguzan, ta sortu eiguzu ezeukitasunaren maitasun aundi bat, berbizkunde egunean entzun al izan daikegun: «Gose nintzan ta yaten emon zeunsten, egafi nintzan ta edaten emon zeunsten... erduze ba munduaren asieratik zuentzat gertaurik dagoan ereiñuaren yabe izatera».

Eskaria.

«*Deus cordis mei, et pars mea, Deus in æternum*». (Ps, 72, 26).

¡Jauna! Izan zaitez nire biotzeko ogasun bakara.

Erabagia.

«*Quod superest date eleemosynam*» (Luc. XI, 41).
Geuk biziteko biar doguna neuriz itxita, beste ondasunak ezeuki-artean zabalduko doguz.



Amargaren egunerako gogartea

Jesusen Biotza ta geixoak

Jesusen Biotzak bere ludi onetako aldiyan, ume ta ezeukiai e'uki aundia izan ba'eutsen, arañegun ta atzoko gogartean ikusi genduanez, ¿zelakoa izan ete eutsen, intziri ta erostaka, neke - miñez beterik aurkeztuten yakozan geixo e'uka'ia? ¡A, auxe bai zala e'ukia! Jesusen Biotzak ez eban izan adorerik onei ezer ukatzeko, beste batzuri ukatua'en.

Pariseo ta Saduzeoak alatz (mirari) bat eskatu eutsenian, Jaungoiko-seme zan ala ez yakitea'en... Jesusek ez eutsen entzun. Bere ikaslak zerutik sua yatsi egiala eskatu eutsenian, eurak Jaungoiko

-izenian artu nai ez ebezan uria ére ta kiskaltzeko... Jesus gor egin zan. Herodes ta bere artekoak alatz eske agertu zirianean be... Jesus órëtarako etzëgoan. Ta azkenez Zebedeo'aren amak, bere seme bientzat, andigurez, bere Éreiñuko gorengo maña bi eskatu eutsozanean be... Jesusek yaramonik ez eban egin. Baña Jeriko'tik urteyeran, bide eskiñatxu baten, itsu érukañi bi diadañez ta gañaxika aurkeztu yakozanian esaten: *¡Jesus, Dabit'en semea, gutzaz érukitu zaitetz, orduan Jesusek ez eban izan Biotzik arei ezer ukatzeko: begiyetan ikutuaz, berealaxe argitu ebazan* (Mat. XXI, 29, 30, 34).

Jerusalen'eruntz yoiala amar legendar-dunek (sarnaz beterikoak) esan eutsenian *¡Jesus, gure Irakaslea, gutzaz éruki!* (Luc. 17, 13) Jesusen Biotza bigunegi egoan, yaramonik ez egiteko. Berialaxe garbitu ebazan.

Kafarnaun'go eunburuak esan eutsanean: *¡Jauna, itz bakartxu bat esan egizu ta nire otseña osatuko da!* (Id. 7, 7),

Jesus'ek geyagoko barik, osatu eban. Eta azkenez Betsaidan, ogetamazortzi urtean zirkiñik egin ezinda egoan geixo erukañiak esan eutsonean: «*Eztaukot gizon bat be, osatuteko uretara lagundu daistan*», Jesusek lagundu eutson, *bapatean osatuaz* (Joan V, 7, 9). Jesusek bere Biotzeko erukiaren erukiz osatu ebazan geixoak zenbatu (kontau) be ezin leikez. Oregaitik berak be nor zan itanduten etoñi yakozanai, gauzarik goiren ta ezaugañientzat lez esan eutsen: Itsuak dakuse (ikus-ten dabe), erenak dabiz, *legenardunak garbi geratzen diraz ta goñak entzun dagie...* (Id. XI, 5).

Baña Jesusen Biotza etzan asetue erukizko alatz orok egiñaz, beste batzuk egitea be nai izan eban. Beraz, emon eutsen deunai geixoak osatzeko almena. Baña ¿zer egin geinke guk deun ez garianok? Egiz, ezingo doguz, biar bada, osakuntza arigañi oneik egin. Baña ¿ezin ete-geinke eurekaz erukizko egintzen bat egin? ¿Ezin ete geinkioe Azken-Sakramentuak ondo

artuten ta Jaungoikoaren aiskidetasunean ilten lagundu?

¡O Biotz maitagaña! Erukitu zaitez gorputzez geixorik dagozanetaz. Baña oindiño be eruki aundiagoa izan egizu euren arimea obenez geixorik daukoenez-taz. Bein au galdu ezkerro ezelan legokez ba? Oregaitik ba Jesus, ez itxi gorputzez geixorik dagozanak. Baña gitxiago, arabe, arimea geixorik daukenak. Oroitu gorputzekaz orain batez be Lourdes'en gomutetan zarian lez. Baña oroitu (gomutau) beste gauza guztien aurretik gogoko geixozaz. Ta sortu gure biotzetan be batzuk eta besteotzazko erukia.

Eskaria.

«*Domine, miserere nostri, fili David!*» (Matt. XX, 30).

¡Jesus, Dabit'en semea, gorputzez ta arimaz geixorik dagozanetzaz erukitu zaitez!

Erabagia.

«*Non desis plorantibus in consolatione, et cum lugentibus ambula*» (Eccles. VII, 38).

Geixo erukañiak lagundu barik ez doguz iñoiz itxiko.



Amaikagaren egunerako gogartea

Jesusen Biotza ta aiskideak

Naiz batera yo, naiz bestera yo, nun-nai dantzugun (entzuten dogun) erosta ta negaí-samiña auxe da: ¡gaur eztago benetako aiskiderik...! ¡aiskide zañak il ziran...! Eta egiz, gizona beti izan da argal ta aldakoña. Beraz, beti izan dira gizasemeen artean gogo - aldakuntzak. Gaur batera dagozanak, biyar bestera: oin moxuka dagozanak, biyar atzamarka: eta gaur aiskide dirianak, biyar areriyo, noiz-nai, ikusi dira. Baña, ¿noiz izan da gaur beste gogo -aldakuntza lotsagaíi? ¿noiz ikusi da zintzotasun gitxiago? ¿noiz esan da egiroago gaur baño «oin benetako aiskiderik ezta-

go?»? Onixegaitik benetako aiskidetasuna gizaseme guztien ta gure artean sortu ta ugaritu daiten, gogoratu dagigun Jesusen Biotzak gai onetzaz darakuskuna.

Adiskidetasunik izango ba'da, aiskideak ideko izan bear dabe: aiskide dirianen artian zelanbaiteko bardintasunak izan bear dau. Onixegaitik esan oi da E'regeak eztaukela, lateñian beintzat, aiskiderik, euren malakorik eztaukelako.

Jesus be, Jaungoikoa zanez, goiregi egoan, aiskideak izateko. Onixegaitik lura yatsi ta gure izate argalez yantzi zan.

Baña bardintasun onez gañera, aiskidetasuna benetakoa izango ba'da, aiskide dirianen artian alkar-maitasunak izan bear dau. Ez edozelakoak, ez aizunak, ez azalutsak, ez atsegin ta aberastasun-egañitikoak: ez egokitasun berekoi usañezkoak: zintzo ta gogotikoak baño. O'regaitik iñoan Jesus'ek: *Eztago maitasun aundiagorik, bere aiskidearen alde bere gogoa izten dabenena baño.* (Joan XV, 13). Eta itzez esan euskun au, egitez be, bere bi-

zitzan argiro irakatsi euskun. ¿Zer itxaron eikean bere ikaslakandik? Alan be... argiro iñoskun «*Nik diñodana egin ba'dagizue, nire aiskideak zare*» (Id. XV, 14). ¿Ze itxaron eikean ilda laugarren egunean ilobiyan ustel-usaiña eriola egoan bere aizkide Lazaro erukariagandik? Alan be... zuzen yuan zan bere ilobira, negar zoli egiñaz, bera ain samindurik ikusen (ikus-ten eben) judeguak ariturik iñoela: *Ecce quomodo amabat eum* (Id. XI, 36). *Begira zenbat maite eban*. Onantxek maite ebazan Jesus' ek bere aiskideak, giza-gaxoak izanañen. Oregaitik esan zan beratzez: «*Begira zeñen maite dabezan*».

¿Zorionekoa beste onenbeste entzun al dagikena! ¿Baña gaurko gizadiatzaz, zoritxañez, ¿egiz esan ete-lei beste ofenbeste? ¿Zenbat iruzurkeri (maltzurkeri) ezta ikus-ten aiskide dirianen artian? Zenbatek eztau isten bere aiskidea bere ondasunak galdu ba'dagiz? ¿Zenbat aiskide idoro ete leiz, bere aiskidea il eta laugarren egun-

ean, aren ilobi aufera yuan eta negar zintzoro dagikenak?

¡O Biotz erukioña! ¡O egiazko aiskidetasunaren eredu bikaña! Biotz - biotzez eskeñak damotzuguz, erukiaren erukiz gure aiskide egin ta egiazko aiskidetasunaren ikasbide edera emon dauskuzulako. Aiskide on egin zinean ezkerro, yafaitu egizu aiskide izaten. Eta benetako aiskidetasuna alde batera itxita, iruzufezko aiskide egin dirianen biotzetan sortu egizu aiskidetasun zintzoa, aiskidetasun onen atsegiña zer dan yakin dagien.

Eskaria.

«*In amicitia illius delectatio bona*» (Sap. VIII, 18).

¡Jauna! zure aiskide izaten dagon atsegiña emon eiguzu.

Erabagia.

«*Multi pacifici sint tibi; et consiliarius sit tibi unus de mille*» (Eccl. VII, 6).

Milaka aiskideen artian, zure antzeko dan bat bakañik autuko (eskojidu) dot neure aiskidetzat.



Amabigaren egunerako gogartea

Jesusen Biotza Gesemaniko baratzean (ortuan)

Jesusen Biotz maitagaña, bere bizitzako egite ta ibilaldi guztietan agertzen yaku irakaspentsu ta maitati. Baña ¿nun irakaspentsuago ta maitatiago Gesemaniko baratzean baño?

Azken-apariya amaitu ta Aita Goikoari eskerak egin ondoren, Olibete'ko mendirantz abiyau zan Jesus bere ikaslakaz, Judas Iskariotaña izan ezik. Gau aretan guztiak beretzaz lotsatuko zirala esaten eutsen bitartian, eldu ziran Gesemaniko baratzera, eta esan eutsen: *Yafi zaiteze emen, ni aratxoago yuan ta otoi dagike-*

dan bitartian (Math. 26, 36). Eta Pedro, Santiago ta Juan beragaz arturik, lañitzen ta gotiluntzen asi zan, eta esan eutsen: *Eriotz-lañitasunez nire gogo au lañi dago: itxaron egizue emen, ta nigaz zuek be itzar (lorik egin barik) zagokeze* (v. 38). Eta apur bat auñeraturik, luñian auzpaztu zan, iñoala: *¡Ene Aita! al ba'da beintzat, ez eistazu edontzi (kalis) gañatz au edan-erain; baña au ta guzti be, ez bedi nik nai dodana egin, zeuk nai dozuna baño* (v. 39).

Onetan agertu yakon zeruko aingeru bat, *eriotz-aldi lañi aretan* adoretuteko, eta odol-irudiko izerdi-tantak luña busti ta goñitu arte eriyoela, geroago ta gogotsuago otoi egiten eban (Luc. 22, 43, 44). Onen ondoren yuan zan ikaslakana ta aurkiturik guztiak lo, esan eutsan Pedro-ri: *¿Ezin izan zare ordu bete berean be nigaz ernai (akordauta) egon?* (Math. 20, 40).

Ona emen Biotzik bigun eta samuñenak gure arimiaren osasunañen igaroten dau-

zan eriotz-laritasun izugarriak. Ona emen Biotzik naigabetuenak maite-miñez bere ikaslai dirautsena: *¿Ezin izan zare ordu bete berean be nigaz itzar egon?* (Math. 20, 40). *¿Zelan izan daiteke au?* Ni zetan eztaukodala, zuen betiko osasunaren, Biotz-ikaraz ta odol-izerdiz luía busti ta goñituteraño ausita, ta zuek... ezeren ardurara barik lo? Ni eriotz-laritasunik larie-nean, Biotz-ikararik aundienaz, neure zan eta kirioetako (nerbiyo) odola neurira ekañi eziñik ta... zuek iñoizko nasayen? Ni emen, estutasunik aundienian ernai, itzar, zur eta bizkor egoteko esaten, ta zuek... ezer entzun ezpazendue lez bertan bera? *¿Ni zuen zoritxar, ezbiar ta neke-miñetan eroapentsuak izan ta Goiko Jaunaren naya egiten ikasi daizuen otoika esaten: ¡Ene Aita! al bada beintzat ez eistazu edontzi au edan-erain, baña au ta guzti be, ez bedi nik nai dodana egin, zeuk nai dozuna baño, ta zuek...*

¡O Biotz uratua! ¡O ikaslen argalkeria! Bai, argalkeria, *gotiluntasuna* (tristezia)

zan, Lukas deunak diñonez, ikaslak, Jau-
na estutasunik aundienean, bertan bera
bakañik itxi-ta eurok lotara goitu ebazana.
Oregaitik Jesus gozoak esateko gogorta-
derik ez eutsen egin. Bakar-bakañik esan
eutsena auxe zan: *Ezin izan zare ordu
bete berian be, nigaz itzar egon?* Baña
¿zer da gu goituten gaituana? ¿zer da guri
Jesusen Biotzaren lañitasun eta odol-izer-
diak aitzu-eraiten deuskuzana? ¿zer zori-
txar eta oñaze koskor batek josten gauzar-
ean gora-goraka Jaunaren aurka yagi
eragiten deuskuna? ¿zer da guri Agurtza
(eñosario) edo Mesa-deun-aldiyan loguria
dakarskuna? ¿Argaltasuna ala epeltasu-
na? ¿Gotiluntasuna ala eskergabetasuna?

¡O Biotz erukañiena! Ondo dakizu zuk,
Gesemaniko baratze oñetan gure arima
bakar au zeruratzeañen igaro dozuzan
odol-izerdi, esnaldi, ta eriotz-lañitasunak
izugañiak dirala. Ondo dakizu, ostera, guk
onerako egiten doguna oso utsa dala.
Zure aúrean, Eleizan, egiten dogun ordu
erditxuari be luzegi erizten deutsogula.

Baña parkatu egiguzu, Jauna, orain arteko guztia, auferantzian bizkořago izango gara-ta.

Eskaria.


«*Quæ utilitas in sanguine meo?*» (Ps. 13, 10).

¡Jauna! zure odol-izerdi tantak alpeřekoak ez bediz izan.

Erabagia.

«*Dolor meus in conspectu meo semper*».

Zuk nire arimia zeruratzeařen, igaro dozuzan neke-min, esnaldi, ta eriotz-lařitasunak egundo be etxataz aitzuko.





Amairugaren egunerako gogartea

Jesusen Biotza ta maitasun-itzak

LENENGO ITZA:

*Aita parkatu egiezu; ez dakie zer egi-
ten daben-da. Biotzeko ugaritasunez itz
egin daroa agoak (Mat. XII, 34). Biotz-
ean zer dagon axe agertuko dau minga-
ñak. Biotzean maitasuna ba'dago, minga-
ñak be maitasun-itzak esango dauz. Baña
biotzean gofoto ta amurua ba'dago, min-
gañak be gofoto ta amurua agertuko dau.
Baleiteke aldiren baten, ez bata ez bestea
be ez agertzea. Baña arintxuago-nekez-
txuago, garaya (aldiya) datoñenian, biotz-
eko taupada oñeik euren burua agertuko
dabe. ¿Nun dakuskegu au argiroago Je-*

sus'egan baño? Inun bez. Bariku guren bat zan. Jesus erubagea, bere burua arantzaz, ta bere onak untze gogorez yosita eukazala, kurutze baten dindilizka egoan. Arantza ta untze-zauri areik emoten eutsen miña ezin aundiagoa zan. Baña oindiño ori ezer ezpalitz lez, erubage aren biotza geyago samindu zeitean, bere areriyoak iribañez, iseka, ta oyuka inotsen: *¡A! Jaungoiko-seme ba-zara, yatsi zaitetz kurutze ofetatik! ¡Judeguen Erege ba'zara, gaizkatu (salbau) zaitte!* Oneri egiten yakozan irainak neuribageak zirian. ¡Biaztunen apurik izan ba'leu, aldi obarik ez ebala izango dirudi agertzeko.

Baña zer zan Jesusen Biotzean? ¿Amurua? ¿Aseferkeria? Ez; Jesusen Biotzean etzan, ez goroto, ez amuru, ez asafekeririk. Oregaitik bere areriyoak gogoren bere aurka yagi zirianian, yaso ebazan bere begiak zerurantz eta otzantasunik aundienaz esan eutsan bere Aita Goikoari: *¡Aita! parkatu egiezu; ez dakie zer egiten daben-da* (Luc. 23, 34).

Itz goragañi onixek esan ebazan Jesus'ek bere areriyoen aurka. Ta beste oñenbeste esan ta egiteko agintzen deusku guri be, irakatsi eder au gomutazoten deusku-nean, esanaz: *etzan egoñi zu be, zeure geideatzaz bigundutia, ni zuetzaz bigundu nazen lez ala?* (Mat. 18, 33). Baña zoritxañez ¿zer egiten dogu? Txarto egin deuskuenai ¿zelako arpegia ipinten deutsegu? ¿Argia ala iluna? ¿Zelako itzak esaten deutseguz? ¿Bigunak ala zoñotzak? ¿zelako bañua izaten deutsegu? ¿Asañeriz erantzuteko bitartia noiz artuko urduri ta artega ez ete-gara izaten?

¡O Biotz samuñ! Lotsagañia da gutzaz yazoten dana. Gure arteko ikusi-ezin ta goñotoak izugañiak dira. Ezerez ta uskeri bategaitik sañi geure gogo argalak aseñeriz irikiten yagiten dira. ¡Jesus maitatia! gomutazo egiguzu Aita baten semeak gariala. Bigundu egizuz gure biotz goñak. Eta irañi (josi) egizu eurretan zeure antzeko arerio-maitasuna, txarto egiten deuskuen bakotxean esan al dagikegun:

*¡Aita, parkatu egiezu; ez dakie zer egi-
ten daben-da!*

Eskaria.

«*Obsecro autem vos, fratres, per nomen Do-
mini nostri Jesu Christi... ut non sint in vobis
schismata*» (1.^a ad Cor. 1, 10).

¡Jesus! zeure izenañen daskatzugu, ez dediña
izan gure artian asañekeririk.

Erabagia.

«*Sol non occidat super iracundiam vestram*»
(Ep, IV, 26).

Iñoiz, zoritxañez, gure biotzetan asañekeririk
sortu ba'ledi be, eguzkiak bere arpegia estaldu
baño len, erpe-erpetik, atarako dogu.





Amalauaren egunerako gogartea

Jesusen Biotza ta maitasun-itzak

BIGAREN ITZA:

Gaur nigaz izango zara atsegin-leku-an.

Zerurako bide bi dagoz: zuzentasun-bidea bata, ta damu-bidea bestea. Oneitarik biotatik onena zuzentasun-bidea da: erubakoen bidea. Baña ¿zer egin, bein zuzentasun-bidea galdu ezkerro? ¿Zorion-itxaropena galdu ta Judas'ek lez burua urkatu? ¡Ez! ¡Eztago oren beaizanik, Jesus'ek kurutzean dingilizka egoala lapur damutuari esan eutsazan maitasun-itzak gogoratu ezkerro! ¡Oneik bai itz sendagañiak! ¡Au bai eruki samuñ!

Egiz, Jesus'ek len be saí agertu eutsen pekatariari edo obendariari eíuki biguna. Au argiro yakiteko eztago Mariya Madalenia ta beste onen antzeko obendariakaz Jesus'ek egin ebana gomutetia baño. Baña au gitxi ba'litz lez, gure itxaropena garbi sendatuta izteko, kurutze-goitik agur egitean, beste agerkai eder au itxi euskun.

Laíunerik aundienian zan Jesus kurutze-goyan, untze gogofez yosita. Beragaz batian beste lapur bi egozan: bata eskumaldian ta bestia eskefean. Asieran, dirudiyenez, onek biyok Jesusen aurka esan-alak esaten ebezan, aldiya baño len, bere eíuz urkatuta egozan ustez - edo. Baña gero, ikusirik onen eskumaldian egoanak, onen eroapen, otzantasun ta arerio-maitasuna, laister igeí eban au gizon baño geyago zana: *Erege, Jaungoiko*. Ta itzulirik (biurturik) oraindio berau iraintzen iñarduan bere lapur-laguna gana, esan eutson: *¿Zer, oin be, zagozan lez urkamendian egon da be, eztaukozu Jaungoiko - bildurik? Egiz gu, ondo merezi*

dogulako gagoz emen... baña onek txikienian be eztau gauza txarik egin (Luc. XXIII, 40, 41). Eta onen ondoren, biurturik Jesus'egana esan eutsan: ¡Jauna! zeure eñeñura eldu zaitezanean, nitzaz gomutau zaitez (id. 42). Eta Jesus'ek berealaxe maitekiro erantzun eutsan: Amen dico tibi, hodie mecum eris in paradiso (Luc. 23, 43). Egiz-egiz diñotzut, gaur nigaz izango zara atsegin-lekuan. ¡Zorioneko lapuñá! ¡Zorioneko itzak! ¿nor izan leike Jesus'egana yuaten bildur, itz sendagarri onek bere agotik entzun ezkeró?

¡O Biotz zoragaría! Aundia zan atzoko gogartean, zure arerioai agertu zeuntsan maitasuna, esanaz: *¡Ene Aita! parkatu egiezu, ez dakie zer egiten daben-da.* Agerkai au, beste geyagoko barik be, naikoa zala dirudi, zuzentasun-bidea galdu dabentak damu-bidera ekarteko. Baña oin-dio au gitxi ba'litz lez, obendari erukañien itxaropena sendatu nai izan dozu, azkespenez (parkaziñoz) gañera, sari edeña eskiñiaz.

Ain egañi biziz itxaropen oñen bila zabiltzazen ezkerro ba, Jauna, añen daskatzugu, al dala, zuzentasun-bidian iraun daigula. Baña zoritxañez iñoiz obenian yausi ba'gendiz, oben onetzaz damuturik, zure aotik entzun al izan daigula: *Gaur nigaz izango zara zeruetako Eñeñuan.*

Eskaria.

«*In Domino sperans non infirmabor*» (Ps. XXV, 1).

¡Jauna! iñoiz, zoritxañez, obenian yausi ba'gendiz be, egikezu gure itxaropena ez daigula galdu.

Erabagia.

«*Ego autem semper sperabo*» (LXX, 14).

Zoritxañik aundienak bialtzen ba'deuskuzuz be, guk beti zeugan itxarongo dogu.





Amabostgaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotza ta maitasun-itzak

IRUGAREN ITZA:

Ona emen zure Ama.

Atzo ta arañegungo gogarteetan ikusi al izan genduanez, aundia - be - aundia izan zan Jesus'ek kurutze-goitik obendariai (pekatariari) agertu eutsen erukia. Ezin pozgarriagoak izan zirian berak onetzaz esandako itzak. ¿Baña or agortu ete zan Jesus'en erukia? ¡Ez! bere azken-arnasa emon baño len gizadi guztiari bañiyen-bañi agertu eutsan bere eruki samura, esanaz: *Ecce mater tua* (Joan. XIX, 27). *Ona emen izten deutzuet Amatzat emakumerik zoragarriena: neure Ama.*

¿Zer dala-ta bañiro eñuki au? ¿Zer dala-ta ete-damosku Jesus'ek une oneitan bere Ama?

Gure Jaun bigunak ondo ekian bere eñukia aundia izan añen be, bere Jaungoikotasunez garbi añituta, beraganako arpegi ta adorerik-ezaz, biar bada bat baño geyago beragandik uñin geratuko ziriala. Oñegaitik ba (eñuki ta maitasunaren ituñi ta jauregia Biotza dan lez, eta Biotz guztien artian bigun ta eñukioñena emakumearen Biotza) lenengo ta bein bere eñukizko bakaulkia (tronua) bere Ama Maria neskutz garbiaren Biotzaren erdi-erdian yañi eban, iragañita egoanez: *Eñukiaren gañean yañiko da bakaulki bat* (Isai, XVI, 5) gero bere iltamuan, biotz eta guzti, oso-osoan, emakume ori, guri zaindari ta bitartekotzat emoteko esanaz: *Ecce mater tua* (Joan. XIX, 27). *Ona emen zuen Ama. Ona emen zeru ta luñen Eñegiña. Bestela nigana eñuki eske etorteko bear dan beste arpegi ezpa'daukozue, Ama samur onen bidez zatokeze.*

¡O Biotz zoragaña! Oso pozgañiak izan zirian zuk iltamuan esan zenduzan lenengo ta bigañen itzak. Onetzaz gomutetia beste barik naikoa zan zugana parkeske, eskar ta mesede bila, ezetariko bildur barik, yuateko. Baña arabe arpegi geyagogaz yuan gintezkezan, gure Amatzat zure Ama donea emon euskuzun ezkerro, azketsi egiguzu zu itxi ta Ama ori agurtu dagigula esanaz:

¡Amarik samur eta bigunena! Agur dagitzugu biotz-biotzez zure seme bañiok. Egiz alde aundiya idoroko dozu zure lengo seme Jesus ta gure artean; argitik ilunera dagon baizen aundia. Baña zure seme donearen guraria auxe izan dan ezkerro, artu gaizuz, Ama laztana, zeure semetzat, guk poz-pozik artzen zaitugu Amatzat-eta. Ointxerik izten dogu zugan gure izan da izateko guztia, eta itxaropenik ziuñenagaz zure babespean (ardurapean) yarten gara.

¡Zeruetako Eregiña maitea! Zure Biotzaren erdi-erdian *Erukia* bera daukozun

ezkero, egikezu, aŕen, gure biotzetan be beti berbera izan daitela, bizitza onen ondoren, gero zugaz ta zure Seme Jesusegaz bizi al izan gadixantzat.

Eskaria.

«Nati sunt tibi filii: constitues eos principes super omnem terram» (Ps. XLIV, 17).

¡Zeruetako Erégiña! Zure seme egin garian ezkero, egin gaizuz zeruko zoriontasunaren yaube.

Erabagia.

«Filice Tyri in muneribus vultum tuum deprecabuntur» (Ps. XLIV, 13).

Geure biotzeko eskintzarik onenak, geure bizitza guztian eskiñiko deutzuguz.





Amaseigaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotza ta maitasun-itzak

LAUGAREN ITZA:

¡Neure Jauna, neure Jauna! ¿Zer dala-ta bertanbera itxi nozu? (Mat. 27, 46).

Jesus'ek kurutzian dingilizka egoala, bere arerioai parkatu, lapur damutuari zerua eskiñi, ta bere Ama gizadiari amatzat emon ondoren, itz onixek esan eban: ¡Neure Jauna, neure Jauna! ¿zer dala-ta bertanbera, bakañik, itxi nozu? Itz eskutukiz beteriko oneitan agertu eban Jesus'ek bere naibage ta samintasun ikaragarria, bere burua, bapere laguntasun baga ikustean. Baña, ¿zer? ¿une oneitan Jaungoikotasunak gizatasuna bakañik itxi

ete eban? ¡Ez! ez eban bakarik itxi ta itxi be eztau egundo egingo, gizakundeko lokariak betiraun guztian iraungo dabe-ta. ¿Zer dala-ta ba dirautso Jesus'ek Aita Goikoari ain naibagetsu ta minberaz: *¡Ene Jauna, ene Jauna! ¿zer dala-ta bertanbera bakarik izten nozu?* Jesus ta gu gorputz baten zatiak gariazelako eta gu zoritxareko obenez edo eskergaiztoz beragandik asarez banatuta ikustean, bere Biotz bigun ta maitagarria uratu egiten dalako. Onixegaitik dirautso Aita Goikoari ez asarez, olan ba'dirudi be, ereguz baño: ¡Aita: zure guramena (borondatea) au ba'da, ukatu egistazu zure Jaungoiko-kozko laguntza. Yaurti egizuz nire lepo-gañera egur guztiak ta itxi nagizu bertanbera bakarik, igaroalak igaroten. Baña ez bizitz onetan ez bestean, ez nagizu banatu neure gorputz-zati kutunak dirian gizasemeakandik. Emen izango dirian birtarte bildur-gañian zerutar eskaez ondo-ondo zaindu egizuz, gero bat izan gaittean. Auxe da Jesus'en Biotzak, su ta

gañez, gure alde egin eban azken-otoi edera. Asmu onez deadar egin eutsan Aita-Goikoari «¡Ene Jauna!»! ene Jauna! esanaz. Eta guk ¿zelan entzun dogu otoi zoragañi au? ¿ze añera izan dau gure Biotzetan? Bere gurari au argiro ezagutuaren be ¿ez ete-gara bear bada, baten baño sañiago, oben astuna egin-da beragandik aldendu? ¿Ez ete-leiskigu Jesus'ek egiz eta benetan, saminez esan: *¡Ene maitetxuok! ¡ene maitetxuok! ¿zer dala-ta nigandik alde egin dozue? ¿Zer dala-ta emen bertan bera bakarik itxi nozue? ¿zer dala-ta nigandik uratu zaree?*

¡O Biotz zoragañia! Entzun dogu zik Aita Goikoari gure alde diñotsazun otoi samuñia. Bertontxe agiri-agirian dakusgu zure Biotza oso osoan uratzen dala, gugandik, nai-ta-nai-ez, alde egin beañia dozun bakoitzean. Zure guraria geugaz beti bizitea dan ezkerro, olan izan dedin, añen daskatzugu Jauna, zugandik aldetako asmu bildurgañia artzen dogun bakoitzean, gure biotzetan gogorkiro ots-egin dagiela

itz laztangafi oneik: *¡Ene-enetxuok! ¿zer dala-ta bertan bera itxi nozue? ¿Gauza txarren bat egin ete-dautzuet?*

Eskarria.


«*Unam petii a Domino, hanc requiram, ut inhabitem in domo Domini omnibus diebus vitæ meæ*» (Ps. 26, 6).

Gauza bakar auxe daskatzut, Jauna, zure etxe-ko ta gorpuzkide izan nadiña neure bizitza guztian.

Erabagia.

«*Vos autem estis Corpus Christi, et membra de membro* (1.^a ad Cor. cap. XII, v. 27) *¿Quis ergo nos separabit a charitate Christi?»* (ad Rom: VIII, 35).

Kristoren gorputz eta bere soin-zatiaren zati garian ezkerro, egundo be banatu barik, beti orixe izango gara.





Amazazpigaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotza ta maitasun-itzak

BOSGAÑEN ITZA:

Egañi naz. (Joan. 19, 28).

Auxe zan Jesus'ek kurutzetik esan eban bosgañen itza: *Egañi naz.* Baña ¿zer? ¿Ez eban ba beste bein beronek esan: Egañi dan guztia etoñi bedi neugana, neu naz bizitzako ituaña-ta? Bai, onantxek da. Jesus bizitzako ituaña da. Baña au ta guzti be, Jesus orain egañiaren-egañiz ito beañean dago. ¿Zetarikua da egañi ori? Zetan esan be ezta Jesus'en gorputzeko egaña izugaña izango zana, ainbeste bide, neke, zigorkada ta estualdi igaro ondoren. Baña egañi onez gañera Jesus'ek

beste egañi bat eukan: *Maitasun-egañia*. Argiro agertu eutsan Jesus'ek egi au Alakoke'tar Margarite doneari esanaz: *Nire Biotza gizasemeen maitasun-egañi da*. Eta gizasemeak ez zelan kentzen deutse Jesusi egañi ori? ¡A! Milakak dagoz oraindik ludi zabalean *bizitzako iturri* ori ez dazauenak (ezagutzen ez dabena), Jesus eurak gaizkatzearen il ba'zan be ez dakienak. Ta yakiña, maitasuna ezaupidetik sortzen dan lez, ezaupiderik ez daukenak maitasunik be ezin izan. Beste batzuk osterá Jesus ondo ezagutzen dabe, baña bizitzako ur garbiak alde batera itxita, edenez (benenez) beteriko itxasora, buruz añera, itsumustuan doyaz. Au ikustean Jesus'ek maite-miñez esan bear: «*Egañi naz*, eta egañi au etxat kenduko zuek nigana oso-osoan etzatozen bitartean». Auxe zan Jesus'ek iltamuan, biotz-biotzez, egin euskun eskaria, eta gaur egunez be, eten baga, *Sagrariotik* dagiskuna. Norbaitek iltamuan ur-apur bat eskatuko ba'leuskigu, ezango ete-geunke

ukatzeko adorerik? Inogaz egingo ez-keunkiana egingo ete-dogu Jesus'en Biotz maitagañagaz? ¿Ez ete-gara aleginduko bere ezaupidea sinisgen artean zabaltzen? ¿Ez ete-gara beti iturri onetako ur garden artean biziko?

¡O Biotz maitagaña! Oin baño lenago-tik genkian zure poz eta atsegiñik aundiena gizaseme-artearen izatea zala. Onen ez bairik txikiena be egundo ez dogu izan. Ori ta guzti be, zure Biotzeko ur garbi ta osasungarrietatik aldendu-ta, zoritxarez, baten baño sañiago izan gariala ezin ukatu geinke. Baña orain bañiyen-bañi, Alakoke'tar Margarite donearen bidez, zeure iltamuko gurari ori agertu deuskuzun eskero, añen daskatzugu, gaurtik añera, artalde bat, zeu artzain zariala egin dagigula.

Eskaria.


«*Ego veni ut vitam habeant, et abundantius habeant*» (Joan, 10, 10).

Gure bizitzako iturri osasungarria izateko etorri zinan eskero, egiz eta benetan izan zakiguz.

Erabagia.

«*Et fiet unum ovile, et unus pastor* (Joan 10,16).

Artalde bat artzain baten mendean ainbat lasterren izan daiten, alegiñak-alegin egingo dodaz, sinisge artean sinesmena zabalduko.





Amazortzigaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotza ta maitasun = itzak

SEIGAĀREN ITZA:

Amaitu da (Joan 19, 30)

Auxe da Jesus'ek kurutzetik esan eban seigaĀren itza. *Consummatum est*. Egin -bear gustiak eginda dagoz. Eleizea irasi dot. Sakramentuak ipiñi dodaz. Gizase -meak azkenerarte maitatu dodaz. Goiko Aitaren esanak oso - osoan egin dodaz. *Consummatum est*. Eztago geyago zere -giñik. Dana dago eginda. Emengoa amai -tu dot. Auxe da Jesus'en Biotz baĀenetik, azken -aldi aretan, pozez ta nasaikiro, urten eban itza.

Gure eriotz-aldia datorkigunean ĵesan

al ete-daikegu beste órénbeste? ¿Esan al ete-daikegu pozez ta garaitzaz deun Paul Bialduaz: *Gudaketa edeña egin dot, egingoak egin dodaz, ta oin eztaukat besterik zuzentasunezko koroya artzea baño* (I Tim, 4, 7); ala gure azken itzak negar- ezko itzak izango ete-dira? Gure eriotz -aldia datorkigunean, Yaunaren otseintzan izango gendun itxitasun ta epeltasunez ańituta, estu ta lańitasunik aundiennen artean: «*Consummatum est*», galduak gara, guriak egin dau, esan bearko ete-dogu...? ¿Ez! Jesus'en Biotzaren maitati zintzoak izaten ba'gara, ta bera lez gure bizitz dana, Goiko Aitaren zeregińak artez, zuzen ta oso-osoz egiten igaro ba'daigu, ber-berak lez orduren baten esan al izango dogu; «*Consummatum est*», neke, lor ta zoritxar guztien aldia igazi da, orain ez- ta ukogu besterik betiko zoriona artzea baño. Betiko zoriona! Betiko zoriona! ¿Nor da itz zoragańi onen izena entzutean pozez gańezka yarten ez dana? ¿Nor da Jesus'en Biotza lez, bere eriotzako orduan

pozez, nasaikiro ta baketsu «*Consummatum est*, emengo eginkizun guztiak zeatz ta ondo amaitu dodaz» esatiafen, bere bi- zipidean Jauna, zor yakon lez, otseinduko ez dabena?

¡O Biotz maitagarriena! Antziz eta nega- rez yayo giñan erbeste onetan. Antziz eta nega- rez daroagu geure bizitza. Au ta guzti be, onek ezkaitu ainbestean ikara- tzen. Gure biotza ezin geyagoan bildur- ikaraz betetan dabena, zoritxa- reko azken- unea da. Ofegaitik ba azken une zora- gañiaren eredu bikaña zarian ofi, afen es- katzen deutzugu, guri be eriotzako une laña yatorkunean lortu daiskuzula zeuk lez baketsu esatia: «Emengoa egin dot: oin eztaukat besterik betiko koroya artzea baño».

Eskaria.


¡Consummatum est! (Joan. 19, 30).

Jauna, egikezu eriotz-aldian egiz esan al da- gigula: «Emengo egin-bear guztiak ondo egin doguz».

Erabaglia.

Bonum certamen certavi, cursum consummavi, fidem servavi. In reliquo reposita est mihi corona justitiæ (I Tim. 4, 7).

Geure arerioen aurka gudaketan egiteko beti gertaurik izango gara, azken-koroi edera artzeko.





Emeretzigaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotza ta maitasun = itzak

ZAZPIGAREN ITZA:

¡Aita! zeure eskuetan izten dot neure arimia. (Luc. 23, 46).

Auxe da Jesus'ek bere arerioai parkatu, lapur damutuai zerua eskiñi, Ama emon, kurutzeko bakartade ta bertan-berratasuna ikusi ta bere ludiko egin-bear guztiak beteta egozala iragañi ondoren, indar da adore andiz esan eban azkenengo itz gomutagaña: *¡Aita! zure eskuetan izten dot neure arimia.*

Yayotzan, gorputzaz batean artu genduan arimea be. ¿Izan ete-lei gauza zuzen ta bidezkoagorik, geure bizitzearen amai-eran arima au bere Yaun ta Yaubearen

eskuetan ipintea baño? ¿Ezta zuzentasunak eskatzen bakotxari beria emoteko? ¿Ezta gure arimea Jaungoikoarena? ¿Ez euskun emon emen beragaz bere otseintzan zintzo yokatu ta gero beragaz beti atsegindu geinkeazan? Auxe da, bai, Jaunak gure arimeai ezañi eutsan elburu ta azkena. Oñez ba gure asmo ta egite guztiak oñaxen zuzendu bear geunkez. Gure egikizun bakañak onixek izan bear leuke: gure gogoai zerurantz, Jaunaren eskuetarantz bultz-egitea.

Baña zoritxañez, geyen aldiz ¿norantz putz egiten deutsegu? ¿Norantz itzuli ta zuzentzen dogu gure arimia? ¿Noren eskuetan izten dogu? ¿Geure arerioen eskuetan? Jaunaren eskuetan badaukogu, zorionez gagoz. Baña gure arerioen esku ta mendean badaukogu, ez daigun aiztu eriotza bizitzearen gerixe bat baño eztala. «Zelango bizitza, alako eriotza». Bizitzan gure arimea, eten baga, Jaunaren ardura-pe ta eskuetan badaukogu, eriotzan be antxe aurkituko dogu. Baña bizitzan gure

arerio bildurgañien eskuetan badaukogu, eriotzako une lañian ¿nok uratu onei?

¡O Biotz erukioña! Amaikatu ikasbide eder eta yaraigari emon deuskuzu zeure yayotzatik eriotzaraño. Amaikatu bider esan deuskuzu: «Erduze neure maite-kutunok; azkatu egizue zeuen arimia arerioen eskuetatik, ta erduze neure Biotzeko atx-zulo onetara, bertontxe koroï eder bat ezañi dagitzuedan. Au ta guzti be, zure dei ta ikasbideai yaramon lañegi egin barik, baten baño sañiago gure biotza arerioen eskuetan yañi ta euki dogula, lotsaz ta damuz autortu beañean gagoz. Baña orain, ezin geyagoan aritu ta pozturik zure azken-itx baketsu ta zoragañi ofeikaz, Inazio Loyolakoak lez, biotz-biotzez dirautzugu: *intra tua vulnera absconde me, zeure zauri-artian gorde gaizuzala*, geure eriotza-orduan bakez ta gogo sendoz, zeuk lez, Goiko Aitari esan daiketsogun: «*In manus tuas, Domine, commendo spiritum meum; Aita, zeure eskuetan izten dot neure arimia*».

Eskarla.

Spiritus redeat ad Deum, qui dedit illum (Eccl. XII, 7).

¡Jauna! itzuli (biurtu) egizu gure arimia bere (egiñe) ta Jaubeagana.

Erabaglia.

Pater, in manus tuas, commendo spiritum meum. (Luc. 23, 46)

Jauna, oindixerik izten dogu geure arimea zeure eskuetan.





Ogeigaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotzaren Agintzariak

LENENGO AGINTZARIA:

Euren bizibideko egin-beñak betetako laguntza ugariak emongo deutsedaz.

Guztioi Jaunak bizipide baterako dei egiten deusku. Batzuri ezkontzarako ots egiten deusku. Beste batzuri ezkongezateko. Urliyai oneitako. Berendiyai, besterako. Batzuei argi-argi euren bizipidea izentetan deutse, Deun Paul Bialduari ta Gontzaga'tar Luis'eri lez. Beste batzuei, zertxo-bait iluntxoago. Baña bizipiden baterako, Jaunak zelanbaitean dei egin ez deutsanik, eztago.

Dei au entzun ta yaramon egin deutsen-

ak asko-be-asko dauko zeruko bidean auferatuta, bizipide ondo aukeratua zeruko bidearen oñari dirudi-ta. Baña bizipidea ondo aukeratuta be, ¿nok ez dazau (ez dau ezagutzen) bizipideko buztariaren aztuntasuna? ¿Nok eztaki zenbat eskar ta laguntza bear dan, bizipiderik bigun ta aukeratsuenai be, berenez, dagokiozan zeregin ta egin-beñak betetako? ¿Nundik eta zelan lortu laguntza oñeik? Ona emen Jesus'en Biotz erukior ta maitatiak Margarite Maria Alakokeri esan eutsana: *Nire maitatzaleak eraspen onen bidez lortuko dabez, euren bizipidean bear dabezan laguntza guztiak.* Baña esango dozu: ¿ezta oin baño lenagoko egia, Jaunak, *beragan dagoana egiten dabena* edo berenez onetarako eragozpenik ipinten ez dautsenai, bere arimeak zerurako bear dabezan laguntzak emongo deutsezala? ¿Zegauza bari agintzen deusku ba orain Jesus'en Biotzak diñoskunean, *bere maitatiak eraspen onen bidez lortuko dabezala euren bizipidean bear dabezan laguntza*

guztiak? Egia da gure Jaunak norberagan dagoana egiten dabena, bere eskar laguntzaileak ez dautsezala ukatzen; bestela ondo gengokez, zerurako ona danik, ezertxu be, ezingo genduke ez asi, ez yañaitu, ez amaitu-ta. Baña au aonelan izan añen be, Jesus'en Biotzak agintzari onetan, len agindu bako zertxobait agintzen deusku. Eztago gurasorik bere semeak maite ez dauzanik. Alan be ez deutesez euren ondasunak guztiai bardin zabaltzen, onari geyen baño. Gure Jaunak be, guztiai emoten deutsez eskar laguntzaileak; ez deutsoz iñori be ukatzen, baña ugari ta berezienak bere Biotzaren maitatzaileentzat daukoz. Onegaitik ba, bere bizipidean, Jaunaren bideetatik zuzen eta artez ibili nai dabena ba-daki oretarako bear dirian eskar laguntzaileak nundik eta zelan yadetsi. Jesus'en Biotz gurgaria da oñein guztioen ituria.

¡O Biotz maitagarria! Eskarik sutsu ta beroenak damotzuguz gutariko bakotxari bere bizipidea izentau deuskuzulako. Ba-

ñia ara be sutsu ta beroagoak damotzuguz bein izentauriko bizipide ofetan zindoro yañaituteko bear doguzan eskar laguntzale berezi-berezien itufia agertu deuskuzulako. Ainbesterañoko mesede oneik egin nai izan deuskuzuzan ezkerro, añen daskatzugu, Jauna, geure bizipidean bear gendukezan eskar laguntzaleak ugaritasunez emon daiskuzuzala.

Eskaria.

Noli negligere gratiam, quæ in te est (1, Tim. IV, 14).

Jauna, zuk eraspen onen bidez bialdu nai deuskuzuzan eskar laguntzale ugariak ez daiguzala alpeñak izan.

Erabagia.

Unicuique datur manifestatio spiritus ad utilitatem (1, ad Cor. 22).

Iragarkizun au gure onerako egin dozun ezkerro, olantxe izan daitean zindoro aleginduko gara.





Ogetabatgaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotzaren Agintzariak

BIGAÑEN AGINTZARIA:

Euroen sendiak (pamiliak) baketuko dodaz.

*Gizonaren luñeko bizitza gudaketa bat dala diñosku Job deunak (VIII, 1). Eta egiz onantxe da izan be. Job eroapentsuak esan ezpaleusku be, geuk geuronez yakingo genduan au onantxe dala. ¡Bakoi-tzak daki zenbat buñukaldi gogor egin bear izaten daben bere bañuko arerioak azpiratuteko! Baña bañuko gure arerioen aurka daukogun gudaketa kendu ezkerro, nekez izango da beste bat negargañiagorik *sendikoa (etxekoa)* baño. Lateñi ta*

oñelako gudaketak baltz ta izugarriak dira. Euroen kalte ta zoritxar ta nasteak, bear dan bestean azaldu leikezanik, eztago. Baña oneik ¿zer dauke zer-ikusi sendiko naste, asafe ta naibagiakaz? ¡A! Oneik bai diriala negargarriak! Batzuetan sortzen dira senafaren eruz. Beste batzuetan emaztiaren eruz, Gaur ondasun-galtzea dala-ta. Biyar semearen eskarbakokeriz. Nai gauza bategaitik dala, nai bestea-gaitik dala, baltza da sendiko buruka. Baña ara be, ¿zer, etxeko gudaketa au Eleiz gauzakaitik sortzen danian? ¿zer etxean Eleizalia eztanen bat, besteai, Job Deunari emaztiak lez, esaten asten ba'da: «¿Oin be txatxukeri oñei begira zagoze?» Sendiak beti izan dauz arerioak. Gaur beste, baña, iñoz bez, sendiaren oñafia ezkontzea dalako; ta asikalditik Yaunak azkatu-eziña egin eban ezkontza au gaurko arerio Jaungoiko-bakoak lazakor egin dabelako. Onixegaitik Jesus'en Biotzak, sendiaren eruki andiz, esan eutsan Margarita Maria Alakoke'ri: Nire Biotza etxean

gurtzen daben *sendi banatuak baketuko dodaz*. ¿Eta zenbat baketu ete-dauz? Ona emen oindiño denpora asko eztala, Alemania'ko emazte batek iñoana: Guraso onakandik yayo ta oindiño baseñitartxu bat nintzala uri andi batera neskame (krieda) yuan nintzan. Ona zalakoan, ango sastre bategaz ezkondu nintzan. Biok giñan katolikoak, baña nire senaía urietako gatx askok ukututa egoan. Lenengoan nik onakorik ez neban ikusten, ta ganera ikusi be ez neban egin gura, beragaz garbi-garbi itsututa nengoan-da. Baña laister agertu zirian bíañik egin gura-eza ta asko oba ez zirian beste argalkeriak. Artietan umetxu bat izan genduan. Onenbestegaz aldatuko zalakoan nengoan. Lenengotxuan onan zirudian. Baña urtebete baño len auñerago baño be txarago egin zan. Ezer esaten ba'yakon: *jixilik!* erantzuten eban, *bestela iges egingo dot-eta*. Onetan zoñez zamaraño bete giñan, ta geunkezan gauzatxuok Juez bidez saldu ta kendu euskuezan. Bigañen umetxua izan

genduanian, arabe goñagoak ikusten geratu giñan. Baña zoritxañak be euren azkena izaten dabe. *Jesus'en Biotzaren Eleizan* gogo-iñarkun (misiñoen) batzuk izan zirian. Egun oneitan biotz-biotzez niñotsan Jesus'en Biotzari: *¡Jauna! añen daskatzut nire senaña zugana biurtu dedila, sendi-guraso on bat izan dedila ta neure begiakaz Jauna artzen ikusi daidala.*

Iruditurik Jaunak oindiño be ez eustala entzuten, bañiyen-bañi gañeztuten neutsan: *Jesus'en Biotz deuna, zugan itxaroten dot.* Geldika-geldika asi zan nire senaña lanian, Meza entzuten ta abar. Neskatilatuak egunero Jauna artzen eban. Bein baten itandu neutsan: *¡Umetxua! noren alde zeure Jaunartzea eskintzen dozu?* Ta erantzun eustan: *Neure aitaren onerako.* Gogo-iñarkunen (misiñoen) azkenean nik etxeratu neban Jesus'en Biotzaren irudia, asi zan gure etxea onespenez betetan, ta ordutik ona gure sendian dirua, auñerapidea ta zoriona besterik ezta izan:

Nire senaña, azken-sakramentuak artuta gero, Jaunaren besoetan il zan. (Mensajero del C. de J., Marzo 1930).

¡Jesus'en Biotz baketsu ta bakezalea! Beste onenbeste yazo dediña sendi asárez banaturiko guztietan.

Eskaria.

Pax super Israel (Ps. 34, 5).

¡Jauna! bialdu egizu zeure bakea sendi berezitu guztietara.

Erabagia.

In die tribulationis meæ clamavi ad te, quia exaudisti me (Ps. 85, 7).

Gure sendian asárea sortzen dan bakotxean, baketuten dakizun oñi deadar egingo deutzugu.





Ogetabigaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotzaren Agintzariak

IRUGAREN AGINTZARIA:

Euren atsekabeetan poztuko dodaz.

Negarézko erbeste onetan bakotxak ikusi ta igaro bear dabezan neke-min ta naibagiak izugarriak diraz. Batzuetan, atzo ikusi genduanez, onen efuz. Beste batzuetan aren efuz. Gaur sendikoen baten uste-uste bako eriotzak lurjota itxi gauzala-ta. Biyar, goizetik gabera txuriko barik, kale goñian geratu gariala-ta. Oin bear bada efuaren samañik barik, izen ona kendu dauskuelako. Gero,... gero beste gauza bategaitik. Baña emen eztago goñiyak ikusi beaña baño. Argiro erakutsi eus-

kun Salbagileak egi au, iñoanian: «*Nire yañaitzale izan nai dabena... kurutzia lepoan dabela yañaitu bearako deust*». Eta ¿zelan ez? ¿Etzan bera be zeruetara atsekabe-bidetik igaro? ¿Etzan bera be kurutzian ezetariko laguntasun baga aurkitu? ¿Zer bidezkoagorik, ba, gu be zeruetara neke-min ta naibage-bidez sartzea baño? Ezer bez. Au ta guzti be, bere bizitzaldian neke-min ta zoritxar askoren bidez, zerua lortu bearako genduala iñoskunak, onexek beronek, oingo aldi onetan Alakoke'tar Margarita deunaren bidez esan deusku: «*Euroen atsekabe guztietan poztuko dodaz*». Baña ez gaitez an itsutu ta aitu daigun ondo agintzari au. Agintzari au lortuteko naikoa dala dirudi Jesus'en Biotza gurtu ta itxaropen ta gañez otoi egitea. Baña ez daigun uste izan egundo be Jesus'en Biotzari su ta gañez ta itxaropenez otoi-egin deusagula-ta, azketsiko gaituala neke-min guztietatik. Ez. Jesus'en Biotzak ez deusku agindu atsekabe guztiak gugandik kentzea, euroetan *poztutea* ba-

ño. Auxe dala-ta, Alakoke'tar Margarite deunak berak be ezin lortu izan eban, ezetara be, bere senide baten osasuna, aren atsekabiak bere arimearentzako zeruko laguntza ta onespena zirialako. Au onelan izanik, ¿nor da bere atsekabe ta ezbiařetan Jesus'en Biotzagana zuzenduko ez dana? Nor da bere estutasun ta lařialdietan Jesus'en Biotz bigun - bigun ta erukior-erukiořari: «*Biotz gurgarřa, poztu nagizu*», esango ez dautsana? ¿Zer egiten deuskue, geyenez beintzat, emengo osalariak eurak be? ¿Osatu? ¡Ez! Askotan itxaropena emonaz poztu, ta au ta guzti be min apur bat artzen dogunerako dei-egiten deutsegu. ¿Pozik andiena gure atsekabietan emon leiskigunari dei-egitea aiztu egingo ete-yaku ba?

¡O Biotz erukiořa! Eskeřak zelan emon ez dakigula gagoz. Kurutzian, atsekaberik andienen erdian be, zuk ez zenduan izan nok poztu. Au ta guzti be, gure ezbiar ta naibageak aren gerixa be izan ez ařen, gure biotz makalen pozgarři izan nai dozu.

Zure guraria au dan ezkerro, aŕen daskatzugu geure atsekabietan zeugana zuzentzeko argi ta adoria emon daiskuzula.

Eskaria.

Memento, Domine, et ostende te nobis in tempore tribulationis nostræ (Esther XIX, 12).

iJauna, gomuta zaitetz, eta agertu zakiguz pozkiĕ, geure atsekabe guztietan.

Erabagia.

Letabor et exultabo in te (Ps. 9, 3).

Zure Biotzera poz biĕa zuzenduko gara.





Ogetairugaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotzaren Agintzariak

LAUGAREN AGINTZARIA:

Euren bizitzan gordeleku ziuña izango nayake.

Estua ta bedaña da, diñosku Jaunak, zeruko bidea (S. Math. 8, 12) ta berau lortzen dabena indaiez lortzen dabe. Mila eragozpen ta añisku yarten yakoz auñean zeruko bideztiari. ¿Nora iges-egin añisku oneitatik? ¿Nun eskutau leike ekaizte-orduan? ¿Nun idoro lei gordelekua añisku-al-diya amaitu daitenean, bañiyen-bañi adorez zeruko bidean yañaitzeko? Jesus'en Biotz maitati ta maitagañian. Auxe da estualdi guztietarako benetako gordelekua.

Autortza orokor bat (bizitza guztiko autortza) egin ondoren agertu eutsan Yaunak Alakoke'tar Margarite Maria'ri, bere arimia estaltzen eban jantzi zuri bat, eduña baño be zuriagua; ta gero, erakutsirik bere Biotz zauritua, esan eutsan: *Ona emen orain ta beti, nik orain emon deutzudan zuzentasun - yantzia, orban bage zaindu ta gorde zeinken lekua.*

Beste onenbeste inotsan Aita Bernardo Hoyos Josulagun (Jesuita) agurgariari be, zirautsanian: *Nire Biotza izango da zure gastelua ta ementxe triminduko diraz arerioen alegin guztiak.* Egi au ezin argiroagoan darakusku Alakoke'tar Margarite'n zoriongintzako idaztiyan be diñoanian: *¿Nor izango da, ba, ain biotz-gogoa, gure arimiaren arerioaren maltzurkeri guztietatik zaindu, ta bere kai ta gordelekua izatiafen lantzaz zulatu ta igaroa izan zan Biotz ain maitatiya, ordez, maitatzera ez igituteko (zirkinduteko)?* (Volum. I, 597 or:) Ona emen ba gure kaia. Ona emen gure atsedeen-leku,

ta a'riskuaren kimitxa bako gastelua. Onaxe yo bear genduke gure arerioak, demoniño, mundu ta aragiak, estu la la'ri artzen gabezan orduan. Baña zoritxa'rez ¿nora zuzentzen gara? ¿Nun eskutetan gara? ¿Ausaz demoniñoaren esku artian? ¿Ausaz munduaren erdian bertan? ¿Ausaz lizunkeri izuga'rien baten?

¡O Biotz maitaga'ria! Amaikatxu bider gure a'riskuetan izan gara estu ta la'ri, nora zuzendu, ez nun eskutau ez dakigula. Baña orain geure kaia ta gordelekua zariala yakin dogun ezkerro, geure a'risku guztietan ortxe eskutau gura geunke. O'regaitik ba esan eiguzu guri be Karda-beraz'tar Agustin euskeldun zintzoari esan zeuntsana: *Neure seme maita Agustin... ointae lenengoz sartu zara nire Biotzean. Baña gaurtik beti izango dozuz atia'z zabalik ta gura dozunean sartzea baño eztaukozu, neu naz zure Jaun ta maitasuna-ta. Emen izango dozuz zeuretzako zeruko atsegiñak, ementxe asetuko dira zure gurari guztiak,*

ementxe izango dozu zure bizileku ta gastelua.


Eskarria:

«*Sapientia œdificavit sibi domum* (Prov. 9, 1).
¡Jauna! guretzako egin dozun gastelu ofetan
geure arisku guztietan gorde gaizuz.

Erabagla:

«*Veni, columba mea, in foraminibus petrae*
(Cant. II, 14).

Geure bizitzako arisku guztietan zeure Bio-
tzeko atx-zulo ofetan eskutauko gara.





Ogetalaugaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotzaren Agintzariak

ZAZPI TA ZORTZIGAREN AGINTZARIAK:

Arima epelak berotu ta beroak gartuko dodaz.

Jaungoikoaren otseintzan otza ta obendaria izan ta betiko osasuna lortzea gauza zail ta gatz-samaña dirudi. Baña ¿oba ete-da epela izatia? Jaunaren esatez ezetz dirudi. ¡A! *baziñake*, diño berak, *otza edo beroa, baña ez otza, ez beroa barik epela zarialako, neure agotik yaurtiten asiko nayatzu* (Apos. III, 15, 16). Egiz epela danak oindio zerutar bizitza dauko. Baña ¿zelako bizitza? Iñok eskurik ezañi ezin leikien baruko geixo azeri ta zor bat

daukonen antzeko bizitza: Bizitza oso makal ta erkiña; il-añean dagoanaren antzeko bizitza. ¿Ez ete-dago bizikera negargari onetan dagozanentzako osagari-rik? Bai; entzun egizue Alakoke'tar Margaritek diñona. Diño beronek: *Gizasamerik geyenen biotzetan ia otzitu ta amatetan egoan Jaun-maitasuna berbiztuteko, bere Biotz doneaganako eraspenna irakatsi ta emon deusku; osagai ta bide bari lez. Eta ¿zenbat gogo nagi ta epel ez ete-dira, Biotz onen erazpenez berotu ta gartu? Juan Inkontris zoriontsua, aberats ta andiki artekoa zala, Agustindaren gopatzean (ordenan) sartu zan. Lenengotxuetan su ta garik andienaz egiten ebazan gopatzak ipinten eutsazan egin-bear guztiak. Baña geldika-geldika dana latz ta astun irudituten yakon ta epeltasunez egiten eban. Gogorik ilun ta yausienagaz egun baten toki a izteko asmoz egoala, agerturik Jesus'en Biotza, esan eutsan: *¡Ene, neure seme txua! emengo bizikeriari gogaikari ba'**

deritxazu, emengo yanai gatz bakoa, emengo otoiai luzeegi, ta emengo barrauei gogoregi, sartu zaiz neure Biotz zauritu onetan, ta orkoxe odoletan bustirik, zure naibage guztiak goxo-goxo egingo dira. Au entzutean, Juan Inkontris, izutu ta lañituta, luñian auzpazturik, Jesus'en Biotzean oso-osorik yañi zan. Ta beronen eraspenez epeltasun guztiak baztartuta, deun andi izatera eldu zan. Ona emen zelan Jesus'en Biotz gartsuak, gogo epelak berotu ta gartuten dauzan. Epeltasun negargañian yausi danak badaki, ba, nun aurkitu leiken bere osakaia.

¡O Biotz zoragañia! Zuk ondo baño obeto dakizu gaurko mundutañak deutzuen maitasuna. Ondo dakizu arima maitatitak be ba-dozuzala. Baña otz-otz eta bero-beroak be bai. Guk Jauna ez otz, ez epel, ez dogu izan nai, bero ta gartsu baño. Oregaitik ba añen daskatzugu zuz-trai-zuztraitik atara daizula, gure gogo ta biotzetan legoken zугanako epeltasuna,

gogo bero ta gartsuz zeure otsein izan gaitazan.

Eskarria.

«*Ne projicias me a facie tua*» (Ps. 30, 12).
¡Jauna! zeugandik ez nagizu egundo be yaurti.

Erabaglia.

«*Spiritu ferventes, Domino servientes*» (Rom. 12, 11).

Gogorik bero ta gartsuenagaz gaurtik auñera, Jauna, otseinduko zaituguz.





Ogetabostgaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotzaren Agintzariak

BEDERATZIGAREN AGINTZARIA:

Neure Biotzaren irudia agirian yafi ta gurtu ta goratzen dan etxea ta lekuak onetsiko dodaz.

Antxiñatik dator, Euskalerian beintzat, batez be bañitan etxeak onesteko (bedeinkatzeko) oiturea. Ez dot uste izango danik, batxu bere, bañitan beintzat onetsibako etxerik. Zetan esanik be eztago, Jesus'ek arpegi onez dakusala Eleiz-arauzta bere izenean egin oi dan onespen au. Baña onespen onez gañera Jesus'ek berberak ezañi nai izan deutse onespen berezi bat, bere irudia agirian ipiñi ta goratzen.

dan etxe ta tokiai. Eta asmu orek agerturik, bein baten, Margarita Maria Alakoke'ri, esan eutsan: *Nire Biotza onespén guztien iturria da, ta ugaritasunez ixuriko dodaz oneik nire Biotzaren irudia, maitatzeko, agirian yarten dan toti guztietan.*

Eta egiz ¿zenbat onespén eder eztau bialdu Jesus'en Biotzak, bere irudia yari dan tokietara? Ona emen Estados Unidos'ko lekaimé (monja) Salesta'en nagosiyak kontautako yazokun bat. Gazte lizun ta ekandu txaretako bat aurkitzen zan Nueva York'en il-añian. Bere ama, Irlandar katoliko zintzoak autortza-kontua aitatu eutsanian, mutila asalez irakiten goragoraka yagi zan, biraoka ta bere inguruan egozan gauza guztiak amari burutik bera yaurti nairik. Era negarga'i onetan ikusirik bere semea, amak biurturik Jesus'en Biotzaren irudiagana, biotz-biotzez esan eutsazan, bere semearen izenean, lapur damutuaren itzak: *Jauna, nire setaz gomutau zaité zeure Efeñuan.*

Bere seme laztana, Jesus'en Biotzaren irudiaren aurian bakarik itxi ta alde egin eban. Andik lasteŕera biurtu zanean, au etzan lengoa: *¡Amatxo maitea!* esan eutsan, *Jesus'en Biotza agertu yat eta esan deust: gaur nigaz izango zara donokian.* Andik lasteŕera, autortza arigari bat egin ondoren, Jaunaren aiskidetasunian il zan. Auxe ta onixen antzeko biurkunde ta onespenak egin oi dauz Jesus'en Biotzak bere irudia yarita dagoan tokietan. Onixegaitik ¿nor izango da bere etxe-saŕerako ate-buruan, ta batez be etxeko gelarik eder ta garantzitsuenian Jesus'en Biotzaren irudiren bat yariko ez dabena? ¿Zein Udal (Ayuntamiento) izango da bere Eri-etxe ta Ikastoletan irudi au yariko ez dabena?

¡O Biotz maitatiya! Andiak ziran zuk, zeure bizitzaldian egin zenduzan mirariak ta bialdu zenduzan onespenak. Onetsita itxi zenduan Elisabete deunaren etxea. Onetsita izten zenduzan zeure oñak ezarten zenduzan etxe guztiak be. Tamalgaría

zan etxe geyagotara, edo obeto esateko etxe guztietara, ez sartzea. Baña au ta guzti be, Biotz zoragaña, poz-pozik gagoz, len zeure aurkezpenez egiten zenduzan onespenak, orain zeure irudia etxietan yañi ta goratuaz egin nai dozuzala iragañi deuskuzulako. Au dan ezkerro, ba, zure guraria, zabal - zabalik izten deutzuguz gure etxiak, onespen ugariz bete daizuzan.

Eskaria.

Quia hodie in domo tua oportet me manere.
(Luc. XIX, 5).

¡Jauna! betor gure etxietara zure irudia, onespendu gaizuzan.

Erabagia.

Pone me ut signaculum. (Cantic. Cant. VII, 6)
Ezaugaritzat ipiñiko dogu zure Biotzaren irudia, batez be gure etxietan.





Ogetaseigaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotzaren Agintzariak

AMAİKAGAĀREN AGINTZARIA:

Beti-betiko, neure Biotzean irarita (jositita) itxiko dodaz, neure Biotz onegana-ko eraspēna zabaltzen dabenen izenak.

Zabalkundea nai-ta-naiezkoa dala esan geinke gauza askoren baĀi jakinazoteko. Milaka gauzak legokez austazpian, bear bada oraindiĀo iĀnok ezagutu baga, norbaitek euren baĀi emon ezpaleu. Gaur-egunean iĀnoiz baĀo obeto ezagutu da zabalkundearen indaĀa. Onegaitik euren asmo ta gauzaren ezaupidea zabaltzea nai dabēnak, noranai bialdu oi dabēz euren ordezkari ta zabaltzaileak: onak, euren

asmo ta gauza onak zabaltzeko; txafak, euren asmo ta amets galgañiak zabaltzeko. Baña ez edozelan; ondo sarituta baño.

Jesus gure Salbagileak be amets eta asmo goragañi bat izan eban bere bizi-tzan, eta gaur be axe bera dauko: *guztiak bere Biotz donera ekartea*. Zetan esanik be eztago gurari ori lortzeko txiki-nian be, iñoren laguntasun beañik ez eukola, bera berberetz naikua zan-da; baña au ta guzti be, bere Biotzaganako eraspen zabaltzañak nai izan dauz; ez edozelan, ondo-be-ondo sarituta baño. ¡O! ze sari eder ta zoragañia agintzen deuten Jesus'ek bere Biotzaren eraspenna zabaltzen dabena. *Neure Biotzaganako eraspenna zabaltzen dabenen izenak*, iñotson beronek, bein baten, Alakoke'tar Margarite Maria'ri, *beti-betiko irañita geratuko dira neure Biotzean*. Baña esango dozu: *¿zer esan nai dau Jesus'en Biotzean «izenak irañita» eukiteak?* Jesus'en Biotzean izena irañita eukitea *«Bizitzako Liburuan»* idatzita eukitea da, Jesus'en

Biotza berberak bein iñoan lez, bera da «Bizitzako Liburua» 1a. Baña ¿zer da Bizitzako Liburua? Bizitzako Liburua zerurako añez-aututa (eskojiduta) dagozanen izentegi edeña da, eta bertan izena idatzita eukitea, arima garbi aurkitzea. Onegaitik agintzari au azaltzean sakontasun andiz diñosku Aita Vermeersch jakintsuak: Eten eta aspertu baga, Biotz oneganako eraspina zabaltzen diñarduenak, berarizko eskar-bidez agertzen dan bere maitasun bat lortzen dabe, bere aiskidetasuna lortzeko, zori txarez asafe ba'lira; eta aiskidetasunian eriotzaraño irauteko, zorionez lendik aiskide ba'lira. ¿Nungo eta zeren zabaltzaleri agindu yako egundo, Jesus'ek bere Biotzaren eraspina zabaltzen dabena agindu deutesen antzeko saririk? Askori agintzen yako bai emen oneitariko lanen orde, bizipide ona. Geyenai bañiz irabazietan zer-ikusia. Baña ¿nok agindu dau egundo ziurtasunez betiko bizitza?

Baña ez uste izan Jesus'en Biotzak, esakerea dan lez, *agindua bat eta emona*

bi, aginduz konpon adi, egiten dabela, ez; bere Biotzaren eraspen-zabaltzaliak, nai ta argaltasunez oben ta siñesgetasunian yausi, goiz edo berandu, bere Biotz erukiz betera ba'dakiz ekarten. Onantxe ekañi eban Iñazio J. Jani Argentinari Abade ziñausle ta eritxi baten Eleizeari betiko agur egiña. Jesus'en Biotzaren maitatzaile ta beraganako eraspen-zabaltzaile azkañan izan zan jaupari au gazte-gaztetxutatik. Baña diabruak yaupariai eurai be ezteutse parkatzen-da, zorionez asko goitu ezin izaten ba'dauz be, au beintzat goitu eban. Baña Eleizeagandik banandu ta ila bigaranean, Jesus'en Biotzak ainbeste maitatu ta zabaldu ebanari bañien-bañi beragana dei-egin eutsan, orduantxe bertantxe bakes ta pozik, deun bat lez bere besartean ilteko. Baña ez uste izan yaupari baten biurkunde ta eriotza miragañia eredutzat (ejenplutzat) ekañi doguzala-ta, agintzari au yaupariantzat bakañik egiña danik, ez; yaupariantzako lez, beste edozeñentzako be egin da, eta onixen-beste egin-bear

izan dauko bakotxak, bere neuñi ta mañan, eraspen au zabaltzeko; alde batetik, edozein (kristiñau) Eleiz-bazkunako batzarkide dalako, eta oñez Eleizearen alde lan egiten bearturik dagoalako, eta bestetik edozeñek daukolako bere arimearen betiko osasuna lortu beaña.

¡O Biotz goragaña! Geure izen ta gomutiak emen ludiyan beti irautia nai genduke. Asmo oñez irañi dogu emengo Liburu ta iñobi (sepultura) añietan, eurretan be, ta ezelan be ezkenduke nai eurretatik iñoiz berau kendu ta baztartzerik.

Baña batez be, Biotz erukioña, geure izena betirauneko «Bizitzako Liburuan» irañita ikustea nai genduke. Liburu oñen Jaun ta Jaubea zeu zarian ezkerro, añen daskatzugu gure izenak, lendik idatzita ezpadaukozuz Liburu oñetan, irañi daizuzala, bertatik egundo be geyago ez kentzeko.

Eskaria.

Describe illa in tabulis cordis tui. (Prov. III, 3).

¡Jauna! irafi egizuz gure izenak zeure Biotzean.

Erabagia.

Firmum fundamentum Dei stat, habens signaculum hoc. (II Tim, II, 19).

Zerurako autuak izango dirianen ezaugarrietatik bat beintzat auxe: zeure biotzaganako eraspen zabaltzaile izatia dan ezkerro, eraspen au al dogunik geyen zabaltzeko asmo sendoa artzen dogu.





Ogetazazpigaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotz garbiaren berbizkundera

Goi-argiz izan ezik ezin esan zeikean, lantzaz alde batetik bestera zuloa, ta odol-ten tingitik barik, garbi-garbi ilda geratu zan Jesus, ostera berbiztuko zanik. Ezin esan zeikean, ez, aren gorputz ilotzak ta arimeak geyago bat egingo ebenik. Baña eritxi oker guztien aurka, berbiztu zan iragarita egoan lez.

Jesus'en berbizkundera gure berbizkundera da. Jesus berbiztu ba'zan, gure burua da-ta, gu be berbiztuko gara; bidezko gauzea da, ba, soin-atal guztiak, buruagaz batian izatia-ta. Baña berbiztuko ba'gara, nai-ta-naiezko gauzea da, geure

biotza bere Biotzaren antzeko egitea. Gurre biotz-zotin, igikun ta taupada guztiak bere antzekoak izatia. ¿Zelakoa zan Jesus'en Biotza? ¿Zelakoak bertan ots ta taupada egiten eben asmo ta gurariak? ¿Garbiak? Ezin garbiagoak. Urik gardenena baño be gardenagoak. Eduñik zuriena baño be zuriagoak. Gardentasuna ta zuriatasuna berbera. Oben-eziña, eta aragiaren gañamura barik sortua zan lez, etzan egundo be bere Biotza gurari txañez orbandu. Etzan egundo be, bertan, txikienian be, goi-bera bidebagerik izan. Bertan izan zan guztia, maitasun ta onoimen edeñaren burundada, su-gaña ta txinparta izan zan. Egiz, gu obenian eta aragiaren gañamura lizunez beterik sortu ta yayoak gara. Ta oñez, zetan esanik be eztago Jesus'en Biotzetik gurera, alde andia-be-andia dagoala, usterik txikienian, gure biotzean griña gaizto ta betar oneik, gora-goraka yagiten dira-ta. Baña au ta guzti be, Jesus'en eta gure biotzen artian antz andiya izan leike, obenian sortu ta yayoak

izan ba'gara be. Batio Deunaren bidez garbituak izan garialako eta zerutar onoi-men-bidez, aragiaren ga'amura deunga oneik itzali (amatau) geinkezalako. Baña zoritxañez o'etarako ¿ze alegin egiten dogu? ¿Ze bide artzen dogu gure biotzak onoi-men-neu'itik urten ez dagian? ¿Alde egiten ete-dogu dantza nastu ta irakurgai ta ikuskizun galga'rietatik? ¿Zelakoa da gure biotzean dagoan maitasuna? ¿Garbia? ¿Zeruta'ra? ¿Ala lizun, betar ta nazkaga'ria?

¡O Biotz maitaga'ria! Poz-pozik eta gogorik bizenagaz trukauko genduke zure Biotza geureagaz. Zuria, zindo, garbi ta donea; guria, griñatsu, lizun ta ustelko'ra dalako. Baña ori ezin daikegun ezkerro, gartu eiguzuz gure biotzak, zeure berbizkunde - ostean, Emaus - bideko ikasleen biotzak sutu ta gartu (Luc. XXIV, 32) zenduzan lez, onetaraxek egunen baten zeu lantxe berbiztu gaitezán.

Eskaria.

Tu, autem, Domine, misere mei, et resuscita me (Ps. XL, 11).

¡Jauna! nitzaz efukitu zaiz eta berbiztu nagizu.

Erabagia.

Christus resurrexit a mortuis per gloriam Patris; ita et nos in novitate vitæ ambulemus (Rom. 6).

Kristo, gure benetako berbizkundera, iñen arte-tik Aitaren aintzaz berbiztu dan ezkerro, aurre-rantzian geure biotzeko griña txar guztiak ezi-ta zainduko doguz, ta bizitza bafi-bafi bat egingo dogu.





Ogetazortzigaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotza ta Espiritu Santua

Jesus'en ludi onetako egin-bear guztia auxe zan: gizasemeak zeruratzea. Baña au lortuteko, aurretiz eurai zerutar eskar ta bizitzea emotea. Onegaitik diño berak: *Erdueze nigana* (Math, XI, 28). *Neu naz bizitza* (Joan. XIV, 5). *Neu naz artzain ona* (Id. X, 11). Baña egin-bear au, ez eban berak berenez, oso-osoan bete nai izan, Aita Goikoaren asmoa zan lez, Espiritu Santuaren eskuetan itxi baño. Auxe dala-ta, negahezko erbeste oni agur egin baño len, bere ikaslai inotsen: *Zuei ondo yatortzue* (*konbeni yatzue*) *ni joatea, ni ezpanoyake, Pozkilea zuekana ez litzake*

*etoñiko-ta; ni joan ezkerro bañiz, zuekana bialduko dot (Joan. XVII, 7). Neuk Aitari eskatuko deutsat, eta berak emongo deutzue beste Pozkile bat (Id. XIV, 16). Eta berberak esan eban lez jazo zan. Mayetz-Pasko-egun baten, ikaslak apaltegian, otoika egozala, berialaxe, zeru-goyan, aize izugañi baten antzeko zarata izugañi bat entzun zan. Andik lasteñera, or-emen, or-emen, euren buru gañetan koroï eder batzuen irudian suzko min batzuk agertu zirian, eta zelan be ez ekiela, añitasun andiz, *Espiritu Santuz beteak izan zirian* (Act. Ap. II, 4).*

Eleizaren iraupen eta sendagañitzat, Jesus'en Biotz maitagañiaren eñeguz, egin zan Aita eta Semeagandik datoñen Espiritu Santu onen bialkunde au, igeri-igeria ta oso zaratatsua izan zan. Baña bialkunde onez gañera, beste beronen bialkunde añigañi bat be egiten da kristiñau bakotxaren arimara. Mayetz-paskoz, ots eta zarataz, ikaslakana yatsi zan Espiritu Santua, axe berbera yasten da orain ixil-ixilik ba-

kotxaren arimara; lenengoz Batio Deuna artzian eta gero, ara be ugaritasun andiagaz, Sendatza artzean; eta antxe yañaitzen dau, beti bere zazpi doe edo emoitzak arimara ixuriten, arik eta oben astunen bategaz, asañez alde eragin artean, eta (jo maitasun neñigabea!) orduantxe be txarto egiñaz damutu ezkerro, *berberak obena parkatzen dau* (In Miss. rom. fer. III post. Pent.) eta bañien-bañi etorten da kristiñauen arimako jauregira. Onegaitik kristiñau - anditasunez añiturik diñosku Leon deunak: *¡Kristiñaua! ezagutu egizu zeure anditasuna!* Eta Deun Paul bialduak diñausku: *¿Eztakizue Espiritu Santuaren Jauregi zariena, eta Jaungoikoaren Espiritua zuekan bizi dana? Iñok Jaunaren Jauregi au orbandu ba'dai, Jaunak galduko dau; Jaunaren Jauregia santua da-ba, eta ori zuek zare* (I Cor. III, 16, 17). *Ez egiozue atsekaberik emon bera-gan ezaugarituak izan zaren Jaungoikoaren Espiritu Santuari* (Eph. IV, 30). Baña zoritxañez ez ete-dogu baten baño

sañiago naibagetu Jaungoikoaren Espiritu Santu au? ¿Ez ete-dogu baten baño sañiago orbandu bere Jauregi edeña? ¿Ze lotsa ta itzal izan dautsegu geure buruai? Inoren oben-bide inoiz izan ba'gara, ¿gomutau ete dogu geure geidea be Espiritu Santuaren Jauregia dala? ¿Ze maitasun ta eraspen deutsagu Irutasuneko irugañen notin edo persona oni?

¡O Biotz maitagaña! Andiak dira, zure irabazkiakañen ta zure e'eguz, geure bizi-tzan artu izan doguzan mesediak. O'egaitik guk beti izan bear genduan zugaz zintso ta esker onekoak. Baña ori ta guzti be, gure arimetara yatsi izan dan Espiritu Santua, zoritxañez, sañi naibagetu izan dogun ezkerro, itxi eiguzu berari esan dagiogula: *Erdu Espiritu done ori... erdu doiaren emolea... erdu biotzen argia... erdu gure arimako ostarari goxo ori. Geitu eiguzu onoimena, ta emoiguzu betiko osasun ta poza. Onantxe. Alleluia.*

Eskaria.

Emitte Spiritum tuum (Ps. III, 30).

¡Jauna! Bialdu eiguzu zure Espiritu Donea.

Erabagia.

Communicatio Sancti Spiritus sit cum omnibus vobis (II Cor. XIII, 13).

Orain artian baño Espiritu Santuagaz artu-emon andiagoa izango dogu, eta bere argitasun-ta laguntasunai aurkarik ez deutsegu egingo.





Ogetabederatzigaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotza gure biotzen Érege

Ludian Jesus'etzaz ezta-baida ta auzi asko izan zirian, bere aldian. Baña guztien ardatza ta oñafia bera nor ete-zane-tzazkoa izan zan. Batzuk yaten, edaten, ta abar ikusten eben; ta oneik ago batez esaten eben: au gizasemeen bat da ba-kañik. Beste batzuk osakuntza ta mirari ariñgañi asko egiten ikusten eben; ta oneik ostera, «Gora Israel'go Éregia» deadar baten, biotz-biotzez, Jaungoiko-biziaren seme ta euren biotzen Éregetzat autortzen eben. ¿Zeintzuena ete-zan egi edo erazoia? Zetan esanik bez, bera Érege autortzen ebenena; Jesus'i, batez be Jaungoiko-se-me dalako, mundu guztiko Érege izatia

dagokio-ta. Baña au ta guzti be, bere al-
dian lez, gaur be, gizartea talde (alderdi)
bi oneitan banatuta dago. Batzuk, asarē
ta amuruz beterik, «*Eztogu ori gure Ére-
getzat gura*» deadar dagie (Luc. XIX, 14).
Beste batsuk, osterā, itzal ta maitasunik
andienaz: «*Nai-ta-naiez, berak izan bear-
dau gure Érege*» diñue (I Cor. XV, 25).
¿Ze deadar entzuten da gure érian? ¿Ze
oyu gure etxean? ¿Ez ete dagoz bata ta
bestea Jesus'en Biotza'ri eskiñita? ¿Ez ete
-da, bear bada, batean ta bestean, Jesus'
en Biotzaren Jaureskundera (entronizazi-
ñoa) egin? ¡Zorionekoak Jesus'en Biotzari
eskiñi dirian éri ta etxeak! ¡Zorionekoak
gogoz ta biotzez, Jesus euren Jaun ta Jabe
ta Éregetzat, ta bere Legia, euren lege ta
egitarautzat artu daben Éri ta Sendiak!
Eta zorionez, ¡zenbat Éri-Alkate ta Etxe-
-Jaunek, abestirik goxo ta pozik andienaz
ez ete-dautse esan «¡Jesus! ¡Jesus! Izan
zaitez, gure Éri ta Sendiko Érege! ¡Ezto-
gu beste Éregerik zeu baño nai!» Baña
¡o samiña! ¿zer da éri ta sendi oñeitan

eurotan be dakuskeguna? ¿Ez ete-dakuskegu, bear bada, ikuskizun ta zine galgaí-irik? ¿Ez ete dakuskegu soñu-jotaldi onak baño txararak ugariago joten dabezan Eri-izeneko Eres-batzen bat (banden bat)? ¿Ez ete-diriaz efi oneitan, eurotan be, biar bada, Alkate Jaunaren baimen edo itxitasunez, gaututa gañeko orduetararteko dantzak eta lotu, lizun ta aragikeriz beteak egiten? ¿Onak ete-dira Efi ta sendi oneitan irakurten dirian egunorokoak (periodikuak)? ¿Ez ete - daike orain Jesus'ek bañien-baí esan, len Judeguai esan eutsen au: *Efi onek ezpane z bai goresten nau, baña bere Biotza nigandik urun dago?* (Math. XV, 8). ¡O! ze ikaragaría litzaken, batez be epaikunde - egunean, Jesus'en Biotz naibagetuagandik, itz oneik entzun biar izatea: «Ni Erege nintzan, eta egiz miñez eskiñi zeunstan nire mendeko izatia ta nire Legia gordetia, baña egitez nire Efeinuko etzara izan, eta orain ¿zelan nai dozu ba nigaz zeru-goian izatia?

¡O Biotz maitagaría! Zuk berberoíek

noiz batean esan zenduan lez, Zu Érege zara. Eta egiz, guk egi ori zindoro siñesten dogu. Onegaitik asmorik onenagaz geure Éri, Sendi ta bakotxaren biotzeko Érege yañi zaituguz, zure legepean beti bizi izateko. Au ta guzti be, ezin ukatu geinke, baten baño sañiago, gure biotzetan, zu barik, beste norbait éregetzat yañi dogula. Baña orain gure bidebagekerietzaz garbi lotsaturik, len baño be gogota biotz gartsuagoaz, bañien-bañi dirautzugu: ¡Gure Biotzetako Éregetzat zeu autorizen zaitugu! (Luc. XVII, 21). ¡Betorkigu ba zure Éreñua!

Eskaria.

Ipse reget nos in sæcula (Ps. XLVII, 13).

¡Jauna! izan zaitez gure Érege, eta zure Legia izan bedi gure Legia.

Erabaglia.

Confitebor tibi, Domine, Rex (Eccle. LII, 1).

Neure Érege ta Jauntzat, beti, autortuko zaitut.



Ogetamargaren egunerako gogartea

Jesus'en Biotzaren agurra

Jesus, bere ikasla maiteai agur gozobat egin, bere Ama zamuña euren Amatzat itxi, Espiritu Santua agindu, bañiro zeruan alkar ikusiko eben itxaropenez sendatu, poztu ta onetsirik, berbere indañez, zerura igon zan.

¡Jesus'en Biotz zoragaña! Guri be tamalez eldu yaku, zelanbait zuri agur egiteko ordua, ez zugaz gogait-egin dogulako, zure Biotza berezikiro goresteko ilau amaitu yakulako baño. Añigañiak izan dira, zuk ña onetan emon deuskuzuzan ikasbide edeñak. Zamur, gozo ta eskutukiz beteak, zuk gure Biotzari egin deu-

tsazuzan ikutu ixil ta eztitsuak. Oregaitik zelan be ez dakigula biotz-biotzetik urtetan izan deuskue Pedro Deunak, Tabor mendian esan ebazan itz oneik: ¡«O ze ederto gagozan emen!» (Marc. IX, 4). ¡Jañaitu dagigun alde barik zure Biotzaren Irakastola onetan! ¡Ekin dayogun aspertu barik zure Biotza kantu ederez go-restuten! Baña gure gurari au zintzoa izan añen be, zure iñak iges-egin dau-ta, guk be... agur egin bear. Baña, Biotz eñukioña, ez uste izan gu, zuri betiko agur egitera goiazetik, ez. Gure artean, ementxe Altarako Sakramentu deun oñetan geratu zarian ezkerro, ainbat sañien onaxe, zeu ikertu (bisitau) ta zer diñoskuzun yakitera etoñiko gara, ta bederatzi barikutan yañaian zeu artzen zaituenai bañiz azken-iraupen edeña agindu deutsezun ezkerro, batez be, egun oñeitan, gu beti, utsik barik, emen izango gozuz. Ez deutzugu ba, betiko agur egiten, apur baterako baño. *Itxaron egizue apur-apur baten eta ikusiko nozue* (Joan. XVI, 16)

esan zeuntsen bein zeure ikaslai. Gu be gaur beste ofenbeste esatera goiaz. Itxa-ron egizu pizka baten, urtia keia lez doia-ta, gu bañiro be, osasunez ba'gara, da-tořen Bagilan, aurten lez, ementxe izango gara-ta. Baña zure guraria ba'litz, aldi au baño len, gu negařezko erbeste onetatik eroatea, eroan gagizuz, gure *biotzak zeu-reagaz batean betiraun guztian bizi dai-tezan* (Ps. XXI, 5).





Jesus'en Biotzaren urrentza (Letuñak)

Jauna, eruki zakiguz; (Eriak) *Jauna eruki zakiguz.*

Jesukristo, eruki zakiguz; *Jesukristo.....*

Jauna, eruki zakiguz; *Jauna.....*

Jesukristo, entzun eiguzu; *Jesukristo.....*

Jesukristo, aditu eiguzu; *Jesukristo.....*

Zeruko Aita Jaungoikoa,

Gizatearen Salbatzaile, Jaungoiko-Semea

Espiritu Santu Jaungoikoa,

Irutasun done, Jaungoiko bakaña,

1) Betiko Aitaren Seme zarean Jesus'en Biotza,

2) Ama Birjiñaren sabelean, Espiritu Santuak sortu zinduzan, Jesus'en Biotza,

3) Jaungoiko-ltzagaz, izatez bat eginda zagozan, Jesus'en Biotza,

4) Neufibako Anditasun-jabe zarean Jesus'en Biotza,

GUTZAZ ERUKITU

- 5) Jaungoikoaren Eleiza donea zarean,
Jesus'en Biotza,
- 6) Jaungoiko Andiaren Gela zarian Je-
sus'en Biotza,
- 7) Jaungoikoaren Jauregia ta Zeruko
atea zarean Jesus'en Biotza,
- 8) Goimatasunezko Laba gorria zarean
Jesus'en Biotza,
- 9) Zuzentasun ta maitasun-ontzia zarean
Jesus'en Biotza,
- 10) Ontasun ta maitasunez beterik zago-
zan Jesus'en Biotza,
- 11) Onbide guztien oxin ondorik bagea
zarean Jesus'en Biotza,
- 12) Gorarik andienak merezi dozuzan Je-
sus'en Biotza,
- 13) Biotz guztien Efege ta Eguzkia zarean
Jesus'en Biotza,
- 14) Jakituri ta jakintza guztien gordairua
zarean, Jesus'en Biotza,
- 15) Jaungoikotasun guztia, oso-osoa
zeugan bizi dan Jesu'sen Biotza,
- 16) Aitaren Otsein zarean Jesus'en Biotza,
- 17) Zeure betetasunetik guztioi emon
deuskuzun Jesus'en Biotza,
- 18) Betiko mendi-bizkañen gurari bizia za-
rean Jesus'en Biotza,
- 19) Eroapen ta eruki andiko Jesus'en
Biotza,

- 20) Zure ateak josten dabezanentzat Aberatz emoilea zarean Jesus'en Biotza.
- 21) Santutasun eta bizitzaren iturria zarean Jesus'en Biotza,
- 22) Gure obenen ordainlari zarean, Jesus'en Biotza,
- 23) Ixeka iguingariz ase ta beteriko, Jesus'en Biotza,
- 24) Gure gaiztakeriakaitik birindua izan zarean, Jesus'en Biotza,
- 25) Ilteraño Aitaren esanekoa izan zarean Jesus'en Biotza,
- 26) Lantzaz zuloturiko Jesus'en Biotza,
- 27) Poz guztien iturria zarean, Jesus'en Biotza,
- 28) Gure bizi ta biztuera zarean Jesus'en Biotza,
- 29) Gure bake ta aiskidegari zarean Jesus'en Biotza,
- 30) Pekatarien aldezko oparia zaran Jesus'en Biotza,
- 31) Zeugan itxaroten dabenen osasuna zarean, Jesus'en Biotza,
- 32) Zeugan ilten diriazenen itxaropena zarean, Jesus'en Biotza,
- 33) Santu guztien atsegina zarean Jesus'en Biotza.

GUTZAZ ERUKITU

Gizonen pekatuak kentzen dozuzan Jaungoikoaren Bildotsa, *parkatu eiguzu launa.*

Gizonen pekatuak..... *Entzun eiguzu, Jauna.*

Gizonen pekatuak..... *Eruki zakiguz, Jauna.*

Jesus apal eta biotz-berakoa:

Egizu gure biotza, zurearen antzekoa.

Otoitza

Alguztidun eta betiko Jaungoikoa! Zure seme maite - maitearen Biotzari, eta Berak pekatarien alde eskiñitako gorapen ta ordain-sariai begiratu egiezu, aŕen; eta eruki-eske yatortzuzanai emon zure parkamena, Jauna; gizaldi ta gizaldietan Zugaz ta Espiritu Santuagaz batean Eŕege bizi dan Jesukristo zure seme oŕen beraren izenean. Olantxe.





Litaniæ de sacro corde Jesu

Kyrie eléison.	Cor Jesu, Verbo Dei
Christe eléison.	substantiáliter uni-
Kyrie eléison.	tum, miserére.
Christe, audi nos	Cor Jesu, majestátis
Christe, exáudi nos.	infinítæ, miserére.
Pater de cælis, Deus,	Cor Jesu, templum Dei
miserére nobis.	sanctum, miserére.
Fili, Redemptor mundi,	Cor Jesu, tabernácu-
Deus, miserére.	lum Altíssimi,
Spíritus Sancte, Deus,	miserére.
miserére.	Cor Jesu, domus Dei
Sancta Trínitas, unus	et porta cæli,
Deus, miserére.	miserére.
Cor Jesu, Fílii Patris	Cor Jesu, fornax ar-
ætéрни, miserére.	dens caritátis,
Cor Jesu, in sinu Vír-	miserére.
ginis Matris a Spíri-	Cor Jesu, justitiæ et
tu Sancto formátum,	amóris receptácu-
miserére.	lum, miserére.

Cor Jesu, pax et re-
conciliatio nostra.

miserere.

Cor Jesu, victima pec-
catorum,

miserere.

Cor Jesu, salus in te
sperantium,

miserere.

Cor Jesu, spes in te
morientium,

miserere.

Cor Jesu, deliciae San-
ctorum omnium,

miserere.

Agnus Dei, qui tollis
peccata mundi, par-
ce nobis, Domine.

Agnus Dei, qui tollis
peccata mundi, ex-
audi nos, Domine.

Agnus Dei, qui tollis
peccata mundi,

miserere nobis.

ŷ. Jesu, mitis et humilis Corde.

℞. Fac cor nostrum secundum Cor tuum.

Orémus

Omnipotens sempiterna Deus, respice
in Cor dilectissimi Filii tui, et in laudes et
satisfactiones, quas in nomine peccato-
rum tibi persolvit, iisque misericordiam
tuam petentibus tu veniam concede pla-
catus, in nomine ejusdem Filii tui Jesu
Christi: Qui tecum vivit et regnat in sæ-
cula sæculorum.

℞. Amén.



Jesus'en Biotzaren parkamen batzuk

1. «*Jesus'en Biotza zugan itxaroten dot.*

(Esaten dan bakotxean 300 eguneko parkamenak, ta ilean parkamen oso bat irabazi leitekez).

2. «*¡O nire Jesus maitagarria! nire eskerbagekeriaren orde, ta nire mendetasunaren ezaugaritzat, nire biotza emoten deutzut, zure eskuetan oso-osoan jarten naz, ta zure laguntza-bidez, geiago zu ez iraintzea erabagiten dot.*

(Egunero esan ezker, 300 eguneko parkamenak, egunian bein irabazi leikez; parkamen oso bat ilean).

3. a) «*Jesus, neure maitearen Biotz biguna, egikezu geroago ta geyago maitatu zaidazala.*

b) «Jesus'en Biotz donea, betorkiguzure éreiñua».

z) «Jesus, biotzez otzan ta apala, egizu gure biotza zeurearen antzeko».

d) «Jesus'en Biotz biguna, izan zaitetz nire maitasuna».

«Jesus'en Biotz santua, zeugaitik dana».

«Jesus'en Biotz oteundua, geitu egiuzuz siñesmena, itxaropena ta goimaitasuna».

(300 eguneko parkamenak otoitz labur bakotxak esaten diriazen bakotxeko).

4. «Neure Salbatzaile maitagañiaren Biotza, egikezu nigan biztu ta geitu daitela zure maitasuna».

(300 egunekoak bakotxeko; parkamen oso bat ilean).

5. «Alde guztietan maitatua izan daitela Jesus'en Biotz donea».

«Jesus'en Biotz biguna, gutzaz ta gurre anaietzaz erukitu zaiz».

(100 egunekoak egunean bein).

6. «Garbitasun guztiaren iturria zarean

Jesus'en Biotza, eŕuki gutzaz».

(100 egunekoak bakoŕxean).

7. «¡O Jose deuna! Jesus'en Biotza goratzen dabenen zaindari ta eredua, gure alde otoi egizu».

(300 eguneko parkamenak).

8. 7 urte ta 7 beŕogeiko Jesus'en Biotzaren iĭa egin ezkerro, egun bakoŕxagaitik.

9. 300 egunekoak bederatziurĕna egiñaz, egun bakoŕxean; ta azkenengo egunean parkamen osoa, aukerazko egun baten.

10. Parkamen oso bat, Jesus'en Biotzaren jaian Autortza ta Jaunartzeagaitik; ta 7 urte ta 7 beŕogeiko, egun berean, gure Jauna agirian dala, bere Biotzaren Aŕentzak (letaiñak) eŕezauta, bere irain-ordainketan izan ezkerro.

11. 300 eguneko parkamenak, egunean bein, Jesus'en Biotzaren aŕentzak esan ezkerro.

12. Jaureskunde (entronizaziño)-egunean,

pekatuen damuz eta Jesus'en Biotzaganako zaletasunez ordu atan an aurkitzen diriazen sendiko guztiak, 7 urteko ta 7 beŕogei eguneko parkamenak irabazi leikez.

13. Egun berean, etxe-sendiko guzti oneik parkamen osoa irabazi leikie autortu, Jaunartu ta Eleizen baten, Aita Santuaren aldez otoi egin ezkerro.

Oaŕa:

Parkamen osoak irabazteko, autortu, Jaunartu, ta Aita Santuaren alde eskatu bear da.





Jesus'en Biotzari gizadia eskintzeko otoitza

Jesus, Gizadiaren salbatzaile gozo-atsegiña! Begiratu eiguzu zeure Altare aurian apal-apal auzpazturik gagozanoi. Zeuriak gara, zeuriak izan nai dogu; eta gero ta batasun andiangoan zugaz bizitearren, guztiok eta bakotxa, gaur, geuronez eskintzen gayakoz zure Biotz done-doneari.

Askok, zoritxañez, zu oraindik etzaitue ezagutzen; beste batzuk zure Aginduak ezetsita, baztartu egin zaitue. ¡Jesus bigun-biguna! Batzuk eta besteokaz erukitu zaitez, eta ekañi egizuz guztiak zeure Biotz santura.

¡Jauna! izan zaitez Erege, ez bakañik zugandik iñoiz alde-egin eztaben seme zintzoena, bertanbera itxi zaituen seme ondatzaileena be bai; egizu, añen, ainbat

lasteñen, Aitaren etxera biurtu daitezala, gosez ta beañez il ezteitezan. Izan zaitez, edo guzuñak iruzurturik, edo asañeak sakabanaturik zugandik bananduta dagozanen Érege; biurtu egizuz egiaren kai, ta siñesmenaren batasunera, laster artalde bat eta Artzain bat baño izan ez deitean munduan. Izan zaitez, oraindik Gentilkerietako ta Maomatañen arteko ilunpean bizi dirianen Érege be: añen, ekañi egizuz danok zeure Éreiñuko argitara. Azkenez, begiratu egiozu eñukizko begiz, aldi baten zure kutuna izan zan eñiari; ixuri egizuz onen gain be, beretzat orain azkatasun eta bizitzako Bateo izan daitean, egun baten bere aurka eskatu eban zure odola.

Emoiozu, Jauna, osotasun ta azkatasun ziuña zeure Eleizeari; emoiezu eñi guztiañ zuzentasuna ta bakea; ta ez dedila, añen, lur zabalean, bazter batetik besteraño deadar auxe baño besterik entzun: ¡Gora, gure osasuna izan dan Jesus'en Biotza! Aintza ta omena berari, orain da beti! Onantxe.



Jesus'en Biotzaren Jaureskundera

(ENTRONIZAZIÑO)

Egiteko errea: Bereziriko egunean, sendi guztia, etxeko gelarik egokienean batzen da: Jesus'en Biotzaren irudia, alik edereña, jarten da mainganean edo beste tokiren baten. Jaureskundera egiten dauna abadea ez tanean, latinez dagozanak ez dira esaten, eta «Kurutze santuaren» ta «Jesukristo nire Jauna»z asi leike.

Edozein abade, gizon edo emakumek egin daike.

Jauresten dauana abadea danean, txaramela (sobrepeliz) eta estolea jantzita, Jesus'en Biotzaren irudia onelan bedeinkatuaz, asiko da.

**Benedictio imaginis Sacratissimi Cordis
Jesu Christi Domini Nostri**

ŷ. Adjutorium nostrum in nomine Domini.

R). *Qui fecit cœlum et terram.*

Ÿ). *Dominus vobiscum.*

R). *Et cum spiritu tuo.*

Oremus

Omnipotens sempiterne Deus, qui Sanctorum tuorum imagines pingi aut sculpi non reprobas, ut quoties illas oculis corporis, intuemur, toties, eorum actus, et sanctitatem ad imitandum memoriæ oculis, meditemur, hanc quæsumus imaginem in honorem et memoriam Sacratissimi Cordis Unigeniti Filii tui Domini Nostri Jesu Christi adaptatam, bene † dicere et sanc † tificare digneris; et præsta ut quicumque coram illa Cor Sacratissimi Unigeniti Filii tui supliciter colere et honorare studuerit, illius meritis et obtentu a te gratiam in præsentibus, et æternam gloriam obtineat in futurum. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

(Ultimo asperges aqua benedicta).

«Kredua» guztiak batean esan abots beteaz zeuen sinismena autortzeko.

Biotzak eskintzeko otoitza

(*Otoitz au abade batek esatekoa da*)

Erdu, Jesus maitagarria, zure Ama gozoagaz, eskintzen deutzugun etxetxu onetara, eta emen bizi garianok, zure Biotz Jaungoikozkoa maite daben sendiai agindurik daukazuzan mesedeakaz, bete gaizuz.

¡O Jaun erukitsua! Zuk Margarita Zorionekoari esan zeuntsan *esker txaraz erantzuna izan aŕen, gizonak maite-maite dauzan Biotza* nai zenduala mundu guztian goratua izatea. Guk beintzat maite zaitugu eta pozik etxean, tokirik egokienean, jartzen zaitugu. Ona emen guztiak batuta, Zu Eŕegetzat arturik, Zure mendean jarteko. Bai; gure onduan biziko zara, eta gure biotzen jaubea Zeu izango zara. Poz eta negarĕtan, gozotasun eta neke-lanetan, etxe onetako gora-bera guztietan, gure onduan Zu izatea gura dogu, orain eta beti. Bedeinkatu gaizuz,

bada; bedeinkatu, Jaungoikoaren naiak gure artetik eroan ebazan maitiak; baita gugaz emen aurkitzen ez diranak be.

Zu maitatuaz bizi gaitezala, Jauna: Sinismenez, zuzen ta garbi; luĕko zorakerietatik atarata, gure arimak Zure Biotz oĕretan itsasi egizuz. Zure Biotzeko zauriaren erdi-erdian gorde gaizuz, eta gero eroan, gu guztiok, sekula guztian Zeugaz bizitera. ¡Beti maitatua, bedeinkatua ta goratua gure artean, bizi bedi Jesus!— Bai, aĕen, bai.

Ordu gozo onetan, gogora ekaĕi biar doguz etxeko guzti-guztiak, iĕlak eta kanpuan diranak, eta arein alde eĕezau daiguzan *Aita Gurea* ta *Agur Maria*.

Orain aitak, amak edo etxeko buruak, artuko dau Jesus'en Biotza'ren Irudia, eroango dau gertaurik dagoan tokira eta Berak Bakaulki edo tronuan jaĕriko dau.— Bitartean beste guztiak «O Biotz Santu» edo beste gauzen bat abestuko dabe.

Beriala belaunikaturik esango dabe otoitz au:

Otoitza

Ora or, beste milen artean berezi ta gure etxetxua jauregitzat artu daun Jesus Eregea. ¡Gora Jesus'en Biotza! Ariturik gagoz, Gure Buru izaten etofita egin deuskuzun mesede onegaz: baru-barutik poztuta, zure aurian makurtzen gara; aita beren umeakaz lez telape batian bizi gara, eta gure pozaldietan pozez, ta gure lor ta neketan, lanean, gugaz batean zagozala-ko. ¡A! Ez gara gu inor Zu gure etxian sartzeko; bana zure naya erakutsi deuskuzu, eta egariz dagoana iturira lez, Zure Biotzera gatoz, betiko asetzen daben ur garbien bila; zugana gatoz damaturik eta uste osoz.

Zagoz gugaz, jo Biotz maitatiya! Zure zalez dagoz gure arimak; guk eta besteak be Zu maitatzea nai dogu. Or daukozu, mundu guztia garbitu ta berotu bear daun sua. ¡Bai, bai! Betania'ko etxea baizen gozua izan dedila zuretzako gurea; emen aurkituko dozuz zugaz beti nai daben la-

gun kutunak. Zure arerioak erbestetzen zaitue, baña ona emen, Ejipto'n lez, gorde eta biziteko tokitxua, ez Zuri dagokizuna lakoa, baña bai zintzo gorde eta maitatuko zaituena. Erdu, Jesus ona, erdu... jetxe onetan be, Nazaret'en lez, maite dogu Maria, zeuk emon euskuzun Ama biguna. Erdu, eriotzak eta denporak gure artian itxi dabezan utsak betetan... ¡A! Gure negañezko egunetan Zu emen izan ba'zintzaz! Eztituko zenduzan, bai, gure malko gañatzak, eta Zuk dakizuzan gure biotzeko zauriak osatuko zenduzan.... Erdu, bai,... laster bear bada nekaldi negar-gañi bañiak datorkiguz, eta gaztetasuneko gure uste ariñak, juan zirian: geldi gugaz, ilunabaña da-ta, eta mundu gaiztoak bere odei baltzetan batu gura gaituz-eta; guk Zeu nai zaitugu, gure Bidea, Egia eta Bizia zarialako.

Beiñola lez esan eiguzu: «Gaurtik aurre-ra etxe onetan bizi nai dot». Bai Jauna; etxe onetako Eregea Zeu zara, eta nai dozun ta agintzen dozuna, guztiok egingo

dogu; Zure gerizpean biziko gara; ez dogu nai beste inork emen agintzerik: Zuek bakarrik gure Ezegea. Goraldia zagoz etxe onetan. ¡Gora Jesus'en Biotza! Bertorrigu zure Ezeina. —Alantxe.

Ama Birjinaren Biotz guztiz garbiaren izenean
Salbe bat.

¡Jesus'en Biotz guztiz Santua: eruki zakiguz! (3 bider).

¡Maria'ren Biotz guztiz garbia: gure alde eskatu!

Margarita Maria Alakoke'tar donea; gure alde eskatu!

(Abade jaunak bedeinkatuko dauz).

Benedictio Dei omnipotentis: Patris, et Filii † et Spiritus Sancti descendat super vos et maneat semper. Amen.

(Jaureskunde - era au 1.914'ko Bagila'ren 15'garako Eleiz-Ba'uti onetako *Boletin Oficial*'etik artua da).



Benedictiones propriæ nonnullorum Ordinum regularium seu Congregationum religiosarum a Sacerdotibus Apostolicum indultum habentibus adhibendæ.

BENEDICTIO ET IMPOSITIO
SCAPULARIS RUBRI PASSIONIS
ET SACRATISSIMI CORDIS D. N. J. C.
ATQUE
CORDIS AMANTISSIMI ET COMPATIENTIS
B. MARIE VIRG. IMMACULATÆ

Propria Congregationis Missionis

(Approbata a S. R. C. die 25 Junii 1847)

*Genuflexo eo, qui suscepturus est Scapulare,
Sacerdos, superpelliceo et stota rubra indutus,
dicit:*

Ÿ. Adjutórium nostrum in nómine Dómini.

℞. Qui fecit cælum et terram.

Ÿ. Dóminus vobíscum.

℞. Et cum spíritu tuo.

Orémus

Dómine Jesu Christe, qui tégumen nostræ mortalitátis indúere dignatus temetípsum exinanivísti, formam servi accípiens, et factus obédiens usque ad mortem Crucis: tuæ largitátis cleméntiam humíliter implorámus, ut hoc genus

vestiménti, quod in honórem et memóriam dolo-
rosíssimæ Passiόνis tuæ, tuíque sacratíssimí
Cordis, necnon et Cordis amantíssimi ac com-
patiéntis immaculátæ Matris tuæ institútum fuit,
atque ut illo indúti hæc mystéria devótius réco-
lant, bene † dicere dignéris; ut hic fámulus tuus,
qui (hæc fámula tua quæ) ipsum gestáverit, te
quoque, per tua mérita et intercessiόνem bea-
tíssimæ Vírginis Mariæ, indúere mereatur: Qui
vivis et regnas in sæcula sæculórum.

R̄. Amen.

Accipe, caríssime frater (caríssima soror),
hunc hábitum benedictum, ut yéterem hóminem
exútus (-a) novúmque indútus (-a) ipsum digne
pérferas, et ad vitam pervénias sempitérnam.
Per Christum Dóminum nostrum.

R̄. Amen.

Deinde subjungit:

Et ego, ex facultáte mihi concéssa, recípio te
(vos) ad participatióem ómnium bonórum spiri-
tuálium, quæ per Sanctæ Sedis Apostólicæ pri-
vilégium huic sancto scapulári, in grátiam Con-
gregatiónis Missiόνis, concéssa sunt. In nómine
Patris, et Fílii, † et Spíritus Sancti.

R̄. Amen.

Denique dicitur trina vice versiculus sequens:

Te ergo quæsumus, tuis fámulis subveni, quos
pretiósó sáanguine redemísti.

BENEDICTIO ET IMPOSITIO
SCAPULARIS SACRI CORDIS JESU

(Approbata a S. R. C. die 4 Aprilis 1900)

Suscepturus Scapulare genuflectit; et Sacerdos, superpelliceo et stota alba indutus, dicit:

Ÿ. Adjutórium nostrum in nómine Dómini.

℞. Qui fecit cælum et terram.

Ÿ. Osténde nobis, Dómine, misericórdiam tuam.

℞. Et salutáre tuum da nobis.

Ÿ. Dómine, exáudi orationem meam.

℞. Et clamor meus ad te véniat.

Ÿ. Dóminus vobiscum.

℞. Et cum spíritu tuo.

Orémus

Dómine Jesu, qui ineffábiles Cordis tui divítias Ecclésiæ sponsæ tuæ singulári dilectiónis beneficio aperuísti: hoc Scapuláre ejúsdem Cordis tui emblémate decoratum bene † dícere dignéris; ut, quicúmque illud devóte gestáverit, intercedénte beáta et clementíssima Genitríce tua María, virtútibus et donis cæléstibus ditári mereátur: Qui vivis et regnas in sæcula sæculórum.

℞. Amen.

Postea Sacerdos Scapulare aspergat aqua benedicta, illudque imponat, dicens:

Accipe, frater (soror), hoc Scapuláre sacri Cordis Jesu, quo ornátus (-a) in honórem et memóriam amóris et passiónis ejus, per intercesió-nem beátæ Mariæ Vírginis, Matris misericórdiæ, divínæ grátiae largitátem et æternæ glóriæ fructum cónsequi mereáris. Per eúmdem Christum Dóminum nostrum.

℞. Amen.

Si Scapulare pluribus imponatur, omnia plurali numero dicantur.

Deinde una vice cum adscripto dicat sive latino sive vernaculo idiomate sequentes preces jaculatorias:

Jesu, mitis et húmilis corde, fac cor nostrum sicut cor tuum.

María, Máter grátiae, Mater misericórdiæ, tu nos ab hoste prótege, et mortis hora súscipe.



BIĪA - BIDEA

	<u>Ing.</u>
Saŕera	7
Eguneroko otoitza	11
Eguneroko Azken-otoitza	13
Jesus'en Biotzaren deia	15
Jesus'en Biotza, bere Amaren eŕayetan....	22
Jesus'en Biotza, seintzaroan.....	27
Jesus'en Biotza, gaztaroan	31
Jesus'en Biotza, ta iĭlen lenengo bederatzi barikuak	36
Jesus'en Biotz maitatiya, ta Eukaristiko Sa- kramentu gurgarĭaganako gizasemien es- kergabetasuna	41
Jesus'en Biotzari egiten yakozan irañak ta onen ordainketa	46
Jesus'en Biotza, ta umeak	51
Jesus'en Biotza, ta ezeukiak	57
Jesus'en Biotza, ta geixoak.....	61
Jesus'en Biotza, ta aiskideak	65
Jesus'en Biotza, Jesemaniko baratzean....	69
Jesus'en Biotza, ta maitasun - itzak (lenen- goa)	74
Jesus'en Biotza, ta maitasun-itzak (bigarĕna)	78

Jesus'en Biotza, ta maitasun-itzak (irugařena)	83
Jesus'en Biotza, ta maitasun-itzak (laugařena)	86
Jesus'en Biotza, ta maitasun-itzak (boskařena)	90
Jesus'en Biotza, ta maitasun-itzak (seigařena)	94
Jesus'en Biotza, ta maitasun - itzak (zazpi- gařena).....	98
Jesus'en Biotzaren agintzariak (lenengoa) .	103
Jesus'en Biotzaren agintzariak (bigařena)..	106
Jesus'en Biotzaren agintzariak (irugařena) .	109
Jesus'en Biotzaren agintzariak (laugařena)	115
Jesus'en Biotzaren agintzariak (zazpi ta zor- tzigařena)	119
Jesus'en Biotzaren agintzariak (bederatzi- gařena)	123
Jesus'en Biotzaren agintzariak (amaikagař- ena)	127
Jesus'en Biotz garbiaren berbizkundera.....	133
Jesus'en Biotza ta Espiritu Santua	137
Jesus'en Biotza gure biotzen Eřege	142
Jesus'en Biotzaren agurá	146
Jesus'en Biotzaren ařentza (Letařak).....	149
Litaniæ de sacro corde Jesu	152
Jesus'en Biotzaren parkamen batzuk	156
Jesus'en Biotzari gizadia eskintzeko otoitza	160
Jesus'en Biotzaren Jaureskundera (Entroni- zaziřoa).....	162



Irañutz anditxuenak

<u>Ingoski</u>	<u>lerro</u>	<u>diño</u>	<u>esan bear leuke</u>
8	12	emezortzigañen- ean	emeretzigañen- ean
17	24	agurgañiagorik	gurgañiagorik
23	5	goratu	gogoratu
26	2	antzekotzat	antzekoak
30	5	gaztetasuna	gaztaroa
34	24	gaztedi	gaztediai
57	24	alxoña	alogera
63	17	orok	oñek
129	6	arima garbi	arima garbiz
139	2	andiagaz	andiagoz
144	8	dantzak eta	dantzaketa

Denpora gitxi baru argitaratuko da Liburutxo onen Egileak egindako beste liburutxo bat:

**Ama Eleiza Deunaren Sakramentuak
emon ta Geixoi Jaunaren besoetan
ilten laguntzeko Liburutxoa**



